hiruka
236. zenbakia
2026ko azaroa



A11 URIBE KOSTAN

Auzokidearen etxea defendatuko dugu

Etxebizitza

Habia egiteko lekurik ez

6-13 | Sakonean

Natxo Gonzalez



«Oraindino borrokan nabil, inoiz baino hobeto»

26 | Berbetan

Oihane Amantegi

«Garrantzitsuena barruan ez gordetzea da»

34 | Kultura

MUXEBARRI

ABENDUA

MUSIKA



ARENE 6

Sutan

ABENDUAK 4 (ostirala)
21:00/8 €/Zutik

HAUR-ANTZERKIA



SESAMO, IREKI ZAITEZ!

Caleidoscopio Tearo

ABENDUAK 6 (igandea)
18:00/8 €/+4 urte

HAUR-ANTZERKIA



OROITZAPEN EDERRAK

Motx pailazoa

ABENDUAK 8 (asteartea)
18:00/6 €/2-8 urte

HAUR-ANTZERKIA



SCROOGE ETA MAMUAK

Khea Ziater

ABENDUAK 13 (igandea)
18:00/10 €/+5 urte

94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

GETXO KULTURA
Getxo bizi ezazu
Bizkaia foru aldundia diputación foral
EL CORREO

SALMENTA
- Romo Kultur Etxea
- Muxikebarri
- Kutxabank sarea

Sarreren salmenta: Venta de entradas: www.kutxabank.es
Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio

Aurkibidea

4 **Iritziak eta Puntua eta kontrapuntua**

5 **Erretratua**

6 **Erreportajea: Habia egiteko lekurik ez**

14 **Herriak**

26 **Natxo Gonzalez**

30 **Agenda**

32 **Kakarraldone: otea**

34 **Kultura: Oihane Amantegi**

36 **Kirola: Iker Gordon, Markel Sierra eta Patxi Ziskar**

41 **EHUko Kultura Zientifikoko Katedra**

42 **Iritziak**

43 **Lehen/orain eta Uribitakora**

44 **Hirukira Olgetan**

46 **Faceguk: Euskal kultura kontsumitzen al duzu?**

47 **Zozketak**









hiruka

HIRUKA kooperatiba sozietatea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta.

Erredakzioa: Hodei Torres, Laura Fontalba, Izaro Garcia eta Iratxe Ugartetxea.

Diseinua eta maketazioa: Artefakto Estudio.

Kudeaketa eta administrazioa: Jon Artola eta Oihane Azula.

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Janire Enzunza, Josu Esnaola, Luka Melendez Arteaga, Iñaki Larretxi Gallastegi, Maria del Carmen Sanjuan, Amaia Arriaga eta Joanes Atxa.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia.

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAk ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu

Leioa Udala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua

Sopelako Udala

Plentzia Urarен bideak

Urduliz Udala

Gorliz Udala Ayuntamiento

Lemoiz Deñona

Barrika Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Bigarren eskuko aukerak



JANIRE ENZUNZA Filologoa eta irakaslea

Orain dala urte batzuk hasi nintzen bigarren eskuko produktuak salerosteko aplikazio bat erabilten; momentu horretan saltzeko erabili neban, handia zan eta ondo egoan altzari bat bota gura ez nebalako. Erosleari asko gustau jakon, oso pozik egoala esan eta, antza, erabilgarria izan jakon. Esperientzia ona izan zanez, aurrerago bestelako kontuak saltzera be animau naz. Batzuk arin saldu izan dodaz; beste batzuk oraindino eroslearen zain dagoz. Eta beste pertsona batzukaz tratua eukitean, gai horretan be trebatzen joan naz eta erosle-motak ezagutu: bai ala bai prezio merkeagoa lortu gura dabenak, negoziatzeko prest dagozanak, kopletan dabilzanak, gauzak argi esaten dabezanak... Orain dala hilabete batzuk, ni bihurtu naz bigarren eskuko produktuen erosle. Batetik, merkeago lortzeko aukereagaitik, eta, bestetik, nahi izanez gero, etxean edo etxetik hurbil jasoteagaitik. Eta konturatu naz aukera on-ona dala eta, bide batez, kontsumismoa eteteko be balio dauala. Eta horixe bera esan deuste saltzaile askok: ondo eta erabilteko moduan dagoana, bota beharrean, beste baten eskuetan ixteaz pozten dirala. Azken batean, horixe izan beharko litzateke helburua, irabazi handia lortzearen ganetik.

Euskaldun deserosoak



JOANES ATXA Euskarari atera kontuk!

Harribitxi soziolinguistikoak topatzeko aukera paregabea ematen du beti familiak. Urtebetetze ospakizuna da gaurkoa. Hamar senide eta txokolate kikara bana. Elkarrizketa ere goxoa, isilune deserosoak ez dituen horietakoa.

Mahaiaren ertz batean Ainara, 18 urte bete berri, Ingurumen Ingeniaritza ikasten hasi da aurten, euskaraz eta EHUn. Hiru ikaskiderekin egiten du goizero klasera bidea. Txutxu-mutxuan, eta gaztelania hutsean. Sorpresarik ez, Bilbo Handian bizi eta D ereduan ikasi dugun gazte guztion tankera; bata Erandiokoa, bestea Algortakoa, laugarrena Sondikakoa.

Aldamenean, klase berera bidean, beste gazte talde bat. Txutxu-mutxuan. Euskara hutsean. Suelto. Natural. Bata Berriztarra, bigarrena Markinarra, eta Elorriokoa azkena.

Ainarak aitortu digu ez dela beste taldetxora hurbiltzen. Lotsatu egiten dela. Lotsa zeri? Euskara baldarregian aritzeari. Euskara batuak eta D ereduak hamarkadak betetzen dituen XXI. mende honetan, badirudi hizkuntza-ohiturek ere definitzen dituztela gure gazteen kuadrillak.

Gazte euskaldun deserosoak sortzen dihardugu, eta erdaldundu egiten zaizkigu. Suelto, natural.

Puntua eta kontrapuntua **Euskararen Eguna**

Hitzetik harago



Altxor, sustrai, ondare,
ikurra, blasoia...
hutsala da honezkero
gorespen gidoia,
hutsala Euskara Eguna
ta santu patroia,
ez baditugu euskaraz
blaitzen behe ta goia
esan, klikatu, ikusi...
heldu da sasoia!

GERMAN KORTABARRIA IGARTUA
Getxo/Oñati

Txakurrari «Etorri!»
eta «Hartu ogia!»
umeei matraka,
euskara garbia.
Tabernan, berriz, beti:
«¡Una caña, tía!»
Ez da gure errua
daukagun nagia...
Euskara maite dugu
erdaraz, egia!

NAROA TORRALBA RODRIGUEZ
Larrabasterra



Algortako Bertsolari Eskola

Ane Serna *Belarrijana* bideopodcastaren aurkezlea

«Euskara langileriaren artean hegemonikoa den proiektu baten bidez zabaldu behar dugu»



Ane Serna, irakaslea eta Euskal Herriko Mugimendu Sozialistako militantea, 2024. urtetik *Belarrijana* bideopodcastaren aurkezlea da.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **IRATXE UGARTETXEA MUELAS**


Sernak egun krisi kapitalista bete-betean gaudela azaldu du, kapitalismoaren arazoak areagotzen dituena, besteak beste, langileen pobretzea eta ideia baztertzaileen zabaltzea. Gazteen despolitizazioagatik kezkatuta abiatu zuten *Belarrijana* bideopodcasta, «errealitatea ulertzeko tresnak emateko eta ideia politikoen transmisiorako, betiere termino komunistetan», Sernaren esanetan.

Gazteek egun informatzeko gehienbat sare sozialak erabiltzen dituztelako aukeratu zuten bideopodcast formatua; haatik, horrek hainbat buruhauste eta gogoeta ekarri dizkie ere: «Gai serioak banalizatzeko arriskua dago, formatuak berak ere ez du ahalbidetzen ideiak askorik garatzea... Dena den, argi dugu *Belarrijana* ezin dela izan gazte langileak politizatzeko tresna nagusia, baizik eta gerturatzeko modu bat, gerora ideia politiko sakonagoak ulertzera zein antolatzera bultzatuko dituena».

Egun euskarak instituzioetan nolabaiteko presentzia duen arren, esparru informalean bere erabilera oso baxua du, eta gazte askok ez dute uste euskarak «euren behar komunikatibo guztiak ase ditzakeenik», Sernaren aburuz. Euskararekiko konpromiso argia dute *Belarrijana*koek: «Euskarazko erregistro zein baliabide kultural desberdinak garatu behar ditugu, ahalik eta sektore gehiagotara heltzeko». Hori Mugimendu Sozialistaren jardunagaz estuki lotuta dagoela adierazi du Sernak: «Euskara ez galtzeko, langile klasearen kapa guztietara heldu behar da, erdaldunetara ere bai. Eta euskara hegemonikoa izateko, langileriaren artean hegemonikoa den proiektu baten bidez zabaldu behar dugu, hau da, langile-klase osoarengana gerturatu behar gara, euren behar guztiak aseko dituen proiektu batekin eta, nola ez, euskara sustatu toki horietan guztietan».

Habia egiteko lekurik ez





Etxe bat lau horma baino askoz gehiago da. Bertan igarotzen dira egunak, pilatzen dira oroitzapenak eta eraikitzen dira etorkizunerako planak. Urteen poderioz, norberaren bizitzaren parte bihurtzen da, ia oharkabean. Baina zer gertatzen da, urteak bertan eman ondoren, etxe horretan bizitzen jarraitu ahal izango duzun ez dakizunean?

TESTUAK: **IZARO GARCIA VELASCO**
ARGAZKIAK: **HIRUKA** ▶

Galdera horri erantzun guran dabiltza Erandioko Los Ochos etxebizitzetako bizilagunek. Batzuek zortzi urte daramatzate bertan; beste batzuek, hamasei. Iaz, ordea, gutun batek ordura arteko lasaitasuna hankaz gora jarri zien: etxebizitzak eskuz aldatu ziren, eta Mosaic enpresaren esku geratu ziren. Auzokideek aldaketa gauzatu ondoren izan zuten horren berri. Ordutik, alokairuen prezioen igoerak, kontratuak berritzeko zailtasunak eta erantzunik gabeko galderak pilatu zaizkie.

Kilometro gutxira, Getxoko Alango auzoan, beste hainbat familiek antzeko kezka dute. Babes ofizialeko etxebizitzetan bizi dira, baina ez dakite ziur 2031tik aurrera zer gertatuko den. Eskualdeko beste txoko batzuetan, berriz, badira oraindino etxebizitza propio bat izateko aukerarik ere ikusten ez dutenak. Plentzian eta Gorlizen, kasu, gazte askorentzat norberaren herrian bizitzen jarraitzea gero eta urrunago dagoen aukera bihurtu da.

Istorio desberdinak dira, baina lotura dute elkarren artean: etxebizitza bat izatea ez da beti nahikoa etorkizuna bertan irudikatu ahal izateko. Batzuentzat, urteetan euren bizileku izan denari eustea da erronka; beste batzuentzat, lehen aldiz etxeko atea norberaren giltzagaz irekitzea. Bitartean, galdera bera dabil batetik bestera: ba al dago lekurik guretzat gure herrietan?

ZORTZI ATARI, KEZKA BERA. Gutunak ez zien galdera guztiei erantzun. Aitzitik, Los Ochoseko bizilagunak ordura arte segurutzat jotzen zutena zalantzan jartzen hasi ziren. Jabetza aldatu zela jakin ondoren, Mosaic enpresagaz harremanetan jartzen saiatu ziren, baina azalpenak lortzea ez da erraza izan. Enara Calvo Gil auzokideak kontatu duenez, bezeroentzako atari digital baten bidez egin behar dituzte kontsultak, eta ez dute erantzunik jasoko dutenaren bermerik: «Guk ez genekien ezer, ez ginen enteratu, inork ez zigun ezer galdetu».

Denborak aurrera egin ahala, informazio faltari beste arazo batzuk gehitu zaizkio. Calvo Gilen arabera, zenbait bizilaguni

alokairua igo diete aldez aurretik jakinarazi gabe, eta beste batzuek ordainketak egin dituztela frogatu behar izan dute, enpresak kontrakoa adierazi dielako: «Auzokide batzuei alokairua asko igo diete bat-batean, hilabete batetik bestera, % 50 gutxi gorabehera». Eraikinen egoerak ere kezkatzen ditu: «Garajeetan ura pilatzen da, hainbat solairutan mantentze-arazoak daude; eraikina egoera kaxkarrean dago».

HIRUKA Mosaic enpresagaz harremanetan jartzen saiatu da, baina erreportaje hau ixteko unean ez du erantzunik jaso. Bitartean, bizilagunen kezkarik handiena kontratuen etorkizuna da. Lehenengoak joan den urriaren 1ean hasi ziren iraungitzen, eta, oraingoz luzatuta badaude ere, auzokideak dio ez dutela enpresagaz baldintzak negoziatzeko aukerarik izan. Etxebizitzak erosteko aukera ere eskaini dietela azaldu du, baina iaz baino askoz garestiago: «Eskaintza hori ez da benetako irtenbidea».

Egoera horren ondorioak ez dira kontratuetan edo bankuko kontuetan bakarrik nabaritzen; bizilagunen eguneroko lasaitasunean ere eragina dute. «Tristura, beldurra eta ezinegona», aipatu ditu Calvo Gilek, zer sentitzen duen galdetuta. «Ez dakizu etxearen jabea noiz agertuko den hemendik alde egin behar duzula eta etxetik botako zaituela esateko», gaineratu du.

Etxea utzi behar izateak, gainera, helbide-aldaketa hutsa baino askoz gehiago esan gura du. Los Ochoseko bizilagun askok urteak daramatzate Erandion; bertan dituzte familia, lagunak, seme-alaben eskolak eta eguneroko harremanak: «Ez digute Erandion geratuko garenik bermatzen, eta horrek ere beldurra ematen digu, bertan gure bizitza dagoelako».

Hasierako bakardadeari, ordea, elkartasunak hartu dio lekua. Bizilagunak antolatzen hasi dira, eta herritarren babesa ere jaso dute. Eskaera ez da etxebizitza doan jasotzea, enpresagaz hitz egiteko eta bertan bizitzen jarraitzeko baldintzak negoziatzeko aukera izatea baizik. «Guk ez dugu inork ezer dohainik ematea eskatzen; ordaintzeko ahalmena daukagu, baina norbait gurekin negoziatzea behar dugu», azpimarratu du auzokideak. «Pertsonak gara, ez haiek dirua irabazteko merkantzia».

Zortzi atarik osatzen dute Los Ochos, baina auzokideek badakite ez daudela bakarrik. Getxoko Alangon, beste hainbat familia ere antzeko ziurgabetasunean bizi dira.

BABESPEAN, BAINA BABESIK GABE. 2031 gorriz markatuta dute Getxoko Alangoko babes ofizialeko 145 etxebizitzetako bizilagunek. Orduan hasiko dira 2016an esleitutako alokairu-epeak amaitzen, eta familiek ez dakite euren etxeetan bizitzen jarraitu ahal izango duten.

Etxebizitzak udal-lurzoruan eraiki ziren, baina Nestar enpresa pribatuak kudeatzen ditu. Urko Ortueta ATARI etxebizitza-sindikatuko kidearen arabera, 15 urteko alokairu-epea amaitzean enpresaren esku egongo da etxebizitzak alokairuan mantentzea edo saltzea. «Oso informazio gutxi dugu, ia dena dago argitzeke», azaldu du.

Alangoko auzokidea den Francisco Urkulluk ere ez du etorkizuna argi ikusten. Getxoko Udaleko ordezkariekaz bildu zirenean, Nestarrek erosteko edo alokairuan jarraitzeko aukera eskainiko ziela jakinarazi zietela dio, babes ofizialeko baldintzak errespetatuta. Baina enpresaren berrespenik ez dute: «Ez dakigu Nestarrek zer eskainiko digun». HIRUKA ere enpresagaz harremanetan jartzen saiatu da, baina ez du erantzunik jaso.

Ziurgabetasun horri eguneroko arazoak gehitu zaizkio. ATARIk kontratuetako ustezko klausula abusiboak, mantentze-lanen gabeziak eta enpresagaz komunikatzeko zailtasunak salatu ditu. Ortuetak azaldu duenez, zenbait auzokideek etxegabetzeko abisuak ere jaso dituzte, kontratuak berritzeko izapideak egin arren. «Antsietate-egoera traumatikoak bizitzera behartuak izan dira», adierazi du.

Horren aurrean, bizilagunak antolatzen hasi dira ATARIren laguntzagaz. Urkulluk azaldu duenez, ordura arte bakoitzak bere kabuz egiten zien aurre arazoei, baina elkartuta Getxoko Udaleko ordezkariekaz biltzea lortu dute. Bertan, kontratuen berritzeak, etxebizitza hutsak eta mantentze-arazoak mahai gainean jarri dituzte.



Eustaten arabera, Uribe Kostako etxebizitzen % 15,1 (12.468) ez dira ohiko bizilekuak; bigarren b

«Ziurgabetasuna prekarietatea da eta prekarietatean ezin da duintasunez bizi-proiekturik eraiki»

URKO ORTUETA
ATARI ETXEBIZITZA SINDIKATUA



Zer gertatuko da 2031n?

Alangoko 145 etxebizitza babestuen alokairu-epeak amaitzen hasiko dira urte horretan.
Kontratuak 15 urterako sinatu zituzten, baina enpresak 75 urterako azalera-eskubidea du.



1 **bizilekuak eta ohiko bizileku gisa erabiltzen ez diren etxeak dira.** KONTSEILU SOZIALISTA URIBE KOSTA

Auziak eztabaida politikora ere egin du salto. EH Bilduk Nestarrek Udalagaz sinatutako kontratua ikertzeko eskatu du, ez-betetze larriak egon daitezkeelakoan; ATARIk, berriz, etxebizitzen kudeaketa publikoa berreskuratzea. HIRUKA Udalagaz ere harremanetan jartzen saiatzean, ez du erantzunik jaso.

Bitartean, Alangoko familiek erantzunen zain jarraitzen dute. Ortuetaren ustez, bost urte falta izateak ez du esan gura erabakiak ordura arte atzeratu daitezkeenik: «Ziurgabetasuna prekarietatea baita; eta prekarietatean ezin da duintasunez bizi-proiekturik eraiki».

HERRIAN HAZI, HERRITIK ALDE EGIN. Plentzian eta Gorlizen, gazte askorentzat emantzipatzeak norberaren herria atzean uztea esan gura du. Etxebizitzen prezioek gora egiten duten bitartean, soldatek ez dute erritmo berean gora egiten. «Ezinezkoa da gure herrian bizitzea, etxebizitzaren bat oinordetzan jaso ezean», azaldu du Danontzat Gaztetxeko kide batek. «Zelan ordaintzen duzu 1.200 euroko alokairua 1.000 euroko soldatarekin?».

Kostaldeko herriak izateak ere badu eragina. Gaztetxeko kideek salatu dutenez, bigarren etxebizitza ugari hutsik daude urtearen zatirik handienean, eta udako hilabeteetan erabiltzen diren etxe horiek ez daude urte osoan bertan bizi gura duten herritarren eskura. «Etxe asko bederatzi edo hamar hilabetez hutsik daude», azaldu du kide batek.

«Pertsonak gara, ez haiek dirua irabazteko merkantzia»

ENARA CALVO GIL
LOS OCHOS-EKO AUZOKIDEA

Zergatik da hain zaila emantzipatzea?

Etxebizitzen prezio altuak eta soldata prekarioak dira gazteek euren herrietan bizitzen jarraitzeko dituzten oztopoetako batzuk.

Plentzian eta Gorlizen, bigarren etxebizitzen presentzia ere salatu dute Danontzat Gaztetxeko kideek: «Gaur egun, ia ezinezkoa da gure herrian bizitzea, etxebizitzaren bat oinordetzan jaso ezean»

Egoerak herrien eguneroko bizimodua ere baldintzatzen du: neguan pertsiana itxiak nagusitzen dira, eta udan, berriz, masifikazioa. Baina kezka ez da etxebizitza bat eskuratzera mugatzen. Herritik alde egiteak urteetan eraikitako harremanak, kultur jarduerak eta komunitatearen etorkizuna ere baldintzatzen ditu: «Etxebizitzak lau pareta baino gehiago dira: auzokideak, herria, identitatea... dira».

Horregatik, Plentzia eta Gorliz urte osoan bizirik dauden herriak izatea aldarrikatzen dute. Gazteek ez dute bertan lo egiteko leku bat soilik eskatzen, euren herriko parte izaten jarraitzeko aukera baizik.

LANA EZ DA NAHIKOA. Etxebizitzaren arazoa gazteen emantzipazioa baino gehiago da. «Sindikatuan egunero ikusten dugu lana izatea ez dela nahikoa pobreziatik ihes egiteko», azaldu du Irati Ugartek, ELA sindikatuko eskualdeko ordezkariak. Haren arabera, etxebizitzen prezioen eta soldaten arteko aldeak gero eta zailagoa egiten du langileek etxebizitza ordaintzea.

Uribe Kostako Etxebizitza Sindikatu Sozialistak ere gertutik ezagutzen du egoera. Azaldu dutenez, azken bi urteetan etxea galtzeko arriskuan zeuden familia ugari hurbildu zaizkie. Gainera, etxegabetze guztiak epaitegietara ez direla iristen ohartarazi dute: batzuetan, kontratua amaitu edo alokairua garestitzean, etxea uztea beste aukerarik ez dute.

Erakunde publikoen erantzukizuna ere azpimarratu dute sindikatuek. LABek alokairuen prezioak jaistea, soldata duinak bermatzea eta etxegabetzeak geldiaraztea aldarrikatu du, baita kontratuen baldintzak betetzen direla kontrolatzeko ikuskaritza-organo bat sortzea ere. Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren ustez, berriz, neurri partzialek ez dute arazoaren oinarria konpontzen: «Etxebizitza gutxi batzuentzat negozio-iturri den bitartean, ezin da benetan bermatutako eskubide bat izan».

Kezka horiek guztiak kalera atera ziren azaroaren 11ko etxebizitzaren aldeko greba orokorrean. Baina sindikatuek aldarrikapenek egun bakarrean geratu behar ez dutela azpimarratu dute, eta antolakuntza indartzeko zein erakundeei neurri zehatzak eskatzeko beharra nabarmendu dute.

Etxebizitzaren inguruko eztabaidan prezioez, kontratuez eta legeez hitz egiten da etengabe, baina zenbakien atzean pertsonen bizitzak daude: urteetan eraikitako harremanak, oroitzapenak eta oraindino gauzatu gabeko planak. Etxe bat lau horma baino askoz gehiago delako, eta benetako galdera ez delako soilik nork lor dezakeen etxebizitza bat, baizik eta nork duen bere herrian etorkizuna eraikitzeko benetako aukera. ◂



A11 Uribe Kostan

Azaroaren 11n, etxebizitza duinaren aldeko aldarriak Uribe Kostako kaleak hartu zituen, greba orokorraren harira. Alokairuen garestitzea, etxegabetzeak eta gazteen emantzipatzeko zailtasunak salatu zituzten mobilizazioetan. Izan ere, Erandioko Los Ochoseko bizilagunak etxea galtzeko beldurrez bizi dira; Getxoko Alangoko familiek etorkizuna zalantzan dute; eta Plentzian zein Gorlizen, gazte askorentzat etxebizitza eskuratzea ia ezinezko erronka bihurtu da. Egoera desberdinak, baina aldarri bera: etxebizitza eskubidea da, ez negozioa.

TESTUA: **IZARO GARCIA VELASCO** • ARGAZKIAK: **HIRUKA**


METAS
ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO
ESPEKULAZIOARIEZ!


LAS MEJORES CONDICIONES PARA COMPRAR O VENDER SU VIVIENDA
dp dompiso
ESPEKULAZIOA
ESPROPIA


GREBA
OROKORRA
GENERAL


ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO
ESPEKULAZIOARIEZ!


SOLTRANS




TABACOS


ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO,
ESPEKULAZIOARI EZ!
Espekulatzaileak espropiatu / Espekulazioa debekatu
Etxebizitza beharrizanen araberako antolabu


ZATOZ!
AZ-11-NOV


LAB
A11 GREBA OROKORRA
Etxebizitza langile klasearen esku
ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO,
ESPEKULAZIOARI EZ!


OBRAMAT


kutxabank
GRE GREBA ORO NEGRA
HUELGA GENERAL


0993 NDZ


ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO, ESPEKULAZIOARI EZ!




NOS QUEDAMOS EN LOS OCHOS
100 FAMILIA BAINO GEHIAGO ARRISKUAN
NEGOZIOA ETEN!
LAB

Leioa Hezkuntza

Udal Hezkuntza Kontseilu berria sortzeko prozesuan

Leioako Udalak Hezkuntza Kontseilua sortzeko prozesua abiatu du, ikastetxeak, familiak, ikasleak eta herriko elkarteak elkarlanean aritzeko. Kultura-, kirol- eta aisialdi-eragileek ere parte hartuko dute. Organoak herriko hezkuntza-beharrak aztertu eta aukera-berdintasuna, bizikidetza eta euskararen erabilera sustatzeko proposamenak egingo ditu. Kontsultarako organoa izango da, erabakitzeko ahalmenik gabe. Herritarrek 30 egun baliodun izango dituzte, azaroaren 11tik aurrera, araudi-proiektuari ekarpenak egiteko. ◂

Leioa 500 urteurrena

Leioak 1.700 oroitzapen lurperatu ditu

Leioak etorkizunari begirako opari berezia prestatu du bere 500. urteurrena ospatzeko: 1.700 tuper, herritarren mezu, bizipen eta oroitzapenez beteak. Urriaren 31n lurperatu zituzten, 25 urte barru, 2051ean, berriro zabaltzeko asmoz.

Leioak altxor bat du ekimenaren barruan, familia eta herritar ugarik parte hartu zuten ekitaldian. Gainera, irrati parte-hartzaile batean euren ahotsak grabatzeko aukera izan zuten, etorkizuneko leioaztarrei mezuak uzteko.

Eguna ospatzeko, arrastian, 500 lagun inguruk Leioaren 500 urteko historia irudikatu zuten *Leioa Invisible* ikuskizunean, herriko hainbat kultur talderen eskutik. Ondoren, txokolate-jana, musika eta erromeria izan ziren. ◂

Leioa Diru-laguntzak

6.000 eurora arteko laguntzak, etxebizitza hutsak alokatzeko

Udalak 80.000 euro bideratuko ditu etxebizitza hutsak merkatura atera eta alokairu eskuragarria sustatzeko.



Eskaerak azaroaren 6tik abenduaren 2ra aurkeztu ahal izango dira.

Leioako Udalak 80.000 euro bideratuko ditu etxebizitza hutsak alokairu-merkatura ateratzeko. Horretarako, 2.500 eta 6.000 euro arteko diru-laguntzak eskainiko dizkie etxebizitzen jabeei, aukeratutako alokairu-modalitatearen arabera.

Bi laguntza-lerro egongo dira. Batetik, Bizigune programaren bidez etxebizitza gutxienez sei urtez lagatzen duten jabeek 6.000 euro jasoko dituzte. Bestetik, merkatu librean alokairu eskuragarria eskaintzen dutenek 2.500 edo 3.000 euroko laguntza jaso ahal izango dute, etxebizitzaren azaleraren arabera.

Bigarren modalitatean, alokairuak ezin izango du hilean 800 eurotik gorakoa izan 75 m^2 edo gutxiagoko etxebizitzetan, ezta 850 eurokoa ere handiagoetan. Gainera, etxebizitza gutxienez bost urtez ohiko bizileku gisa alokatu beharko da.

Eskaerak azaroaren 6tik abenduaren 2ra aurkeztu ahal izango dira, Udaletxean, Gaztelubideko HAZen edo bide telematikoen bidez. Laguntzak puntuazioaren arabera banatuko dituzte, aurrekontua agortu arte. ◂



ABENDUAK 3

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Iragana mantenduz, etorkizuna eginez!

Leioa

500 urte



Getxo Itsaspeko tunela

Itsaspeko tunelaren ingurumen-arriskuak ikertuko dira

Europako Inbertsio Bankuak (EIB) ikerketa abiatuko du itsasadarraren azpiko tunelaren ingurumen-arriskuei buruzko informazioa behar bezala jaso ote zuen argitzeko. Orain dela hiru urte, 2023an, 200 milioi eurorainoko kreditua onartu zuen proiektua finantzatzeko, baina gerora egindako aldaketak eta horien ingurumen-eragina aztertuko ditu orain. Besteak beste, tunelaren ahoetako kutsadura, zarata eta bibrazioak ikertuko ditu, baita inguruko etxebizitzetan eta ikastetxeetan izan dezaketen eragina ere; Artatza/Romo Institutua tartean. Hala ere, ikerketak ez du lanak geldiaraztea edo kreditua bertan behera uztea ekarriko. ◂

Getxo Algortako Dendak

Getxo, tokiko merkataritzaren alde

Algortako eta Itzubaltzeta/Romoko 70 saltoki baino gehiago tokiko merkataritza sustatzeko kanpaina egiten ari dira azaroaren 9tik 22ra. Erosketa edo kontsumo bakoitzeko, bezeroek 100 euroko hamar opari-txarteletako bat irabazteko aukera dute. Aurten, berrikuntza gisa, sari gurutzatuen sistema ezarri dute: Algortan saritutakoek Itzubaltzeta/Romoko saltokietan gastatu beharko dituzte txartelak, eta alderantziz. Ekimenaren bidez, Algortako Dendak eta Romo Bizirik elkarteek bi auzoetako merkataritza ezagutarazi eta bezeroen arteko mugimendua sustatu gura dute. ◂

Getxo San Nikolas Ikastola

Haur Hezkuntzako eraikin berria 2027an prest egongo da

San Nikolas Ikastolako eraikin berriak egurra, argi naturala eta jasangarritasuna izango ditu ardatz.



Familiek eraikina obretan dagoela bisitatu ahal izango dute. SAN NIKOLAS IKASTOLA

San Nikolas Ikastolako Haur Hezkuntzako eraikin berria 2027ko maiatzerako amaitzea aurreikusten dute, 2027-28 ikasturtean erabiltzen hasteko. Horrela, Haur Hezkuntzako azpiegitura guztiak espazio bakarrean bilduko dituzte. Eraikinak egur kontralaminatuzko egitura izango du, eta argi naturala eta naturagaz lotutako espazioak izango ditu ardatz. Proiektuak interesa piztu du hezkuntza- eta eraikuntza-sektorean ere; besteak beste, EHUko Ingeniaritza Eskolako 18 ikasle eta irakasle bertaratu dira erabilitako eraikuntza-sistemak ezagutzera.

Eraikin berrian eguzki-plakak instalatu dituzte, urtean 106 MWh energia ekoizteko, eta Auzoargi proiektuaren bidez inguruko famili eta herritarrekaz partekatzeko aukera izango dute.

Horrez gainera, ikastolan seme-alabak matrikulatzeko interesa duten familiek eraikina obretan dagoela bisitatu ahal izango dute ate irekien jardunaldietan: abenduaren 16an eta 17an, eta urtarrilaren 20an eta 21ean. ◂



Sopela Etxebizitza

Sopela etxebizitza-eremu tenstionatu izendatu dute

Udalak horrek alokairuaren prezioak mugatzeko eta etxebizitzarako sarbidea errazteko neurriak aplikatzea ahalbidetuko duela esan du.



Udalak sustapen berriak, etxebizitza hutsen mobilizazioa eta laguntzak iragarri ditu.

Sopelako Udalak azaldu duenez, hiru urteko ekintza-plana aktibatuko du orain, sustapen berriak, etxebizitza hutsen mobilizazioa eta alokairurako laguntzak barne hartzen dituen, besteak beste.

Planak etxebizitza eskuragarriaren eskaintza handitzeko sustapen berriak aurreikusten dituela adierazi du Udalak. Horretarako eremu nagusia Abaro eremua izango da, non 602 etxebizitza eraikitzea aurreikusten den; horietatik, 490 babes ofizialekoak izango dira, eta 112, libreak. Horregaz batera, Ripa eremuan, Udalak Hiri Antolamentuko Plan Orokorra aldatuko du bertako etxebizitzen % 75 babes publikokoak izan daitezen. Era berean, Udalak azaldu du Sopelako udal-lursailetan zuzkidura bizitokien eraikuntza aztertzea aurreikusten duela, baita etxebizitza partekatuak bezalako aukerak ere.

Okupatu gabeko etxebizitzak mobilizatzea da planaren beste ardatzetako bat. Udalak iraganean egindako diagnostikoaren arabera, inor erroldaturik ez duten 805 etxebizitza daude herrian, eta horiek Alokabide programan sartzeko lan egingo duela esan du. Gainera, Udalak Bizigune programara batutako etxebizitzen IBIaren hobaria % 50etik % 99ra handitzea eta inor erroldaturik ez duten higiezinen gaineko errekargua % 150era handitzea aurreikusten du. Horregaz batera, lokal hutsak udal-etxebizitza tasatu bihurtzea errazteko araudia berrikusten eta erabilera turistikoko etxebizitzak erregulatzeko ordenantza espezifikoa prestatzen ari dela azaldu du ere.

Sopelako Udalak azaldu duenez, hiru urteko ekintza-plana aktibatuko du orain.

Gainera, Udalak esan du planak erraztasunak eman gura dizkiela gazteei, Gaztelagun eta Emantzipa programen bidez. Egoera ekonomiko zaurgarrian dauden pertsonentzako larrialdi sozialeko laguntzak emango direla ere gehitu du. ◂



Erandio Tren-kotxetegi berria

30 tren-unitate hartzeko gaitasuna izango du

Erandioko Arriagas/Playabarri inguruan egingo den metro-trenen kotxetegia hasierako proiektuan aurreikusitakoa baino handiagoa izango dela aurreratu dute. Instalazioak 30 tren-unitate inguru hartzeko gaitasuna izango du, eta Eusko Jaurlaritzak 2029an martxan jartzea aurreikusten du.

Azpiegitura metro eta tren sarearen etorkizuneko zabalkundeari erantzuteko eraikiko dute, batez ere 3., 4. eta 5. lineetako tren-unitateei zerbitzua emateko. Hasierako proiektuak 20 tren-unitate inguru gordetzeko diseinua zuen; egungo planteamenduak, berriz, edukiera 30 tren-unitate ingurura handitzea aurreikusten du.

Proiektua Bilboko metro-sarearen hedapenagaz lotuta dago, bereziki 4. linearen garapenagaz eta datozen urteetan tren-parkea handitzeko aurreikusiagaz. Horri esker, Erandioko instalazioa Bizkaiko tren-kotxetegirik handiena izatea aurreikusten da, 30 tren-unitate inguruko edukieragaz.

2022ko oinarrizko proiektuak 25,83 milioi euroko aurrekontua zuen, BEZa barne. Orain, Euskal Trenbide Sareak –ETS– proiektua handitzeko eguneraketa esleitu berri du; eta instalazio berriak 40 milioi euro inguruko inbertsioa izan dezake, 3., 4. eta 5. lineetako trenak hartzeko helburuagaz.

Azaldu dutenez, azpiegitura ez da trenak gordetzeko kotxetegi hutsa izango. Besteak beste, trenak garbitzeko instalazioak, ikuskapen-hobia, mantentze-eremua, biltegiak eta langileentzako zerbitzuak aurreikusten dituzte.

Egungo aurreikuspenen arabera, obrak 2027tik aurrera hasiko lirateke, eta instalazioa 2029an martxan jartzea da helburua. ◂

Urduliz Berdintasunaren aldeko baldosa

Berdintasunerako Bidea osatzeko esaldi berriaren bila

Helburua indarkeria matxistei buruz sentsibilizatzea eta berdintasuna sustatzea da. Horretarako, urtarrilaren 31ra arte bidali ahal izango dira esaldien proposamenak.

Proiektu parte-hartzaile honen bidez, herritarrek berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako hurrengo baldosa osatzeko esaldiak proposatu ahal izango dituzte. Helburua *Berdintasunerako Bidea* osatzea izango da.

Herritarrek egindako proposamenei esker, *Berdintasunerako bidea* talde eragileak, enpresa espezializatu baten eta berdintasun-zinegotziaren aholkularitzagaz, oroimeneko baldosa berri bihurtuko den esaldia aukeratuko du.

Orain hasita, proiektua martxoaren 8an amaituko dute. Emakumearen Nazioarteko Egunean, 2027ko martxoaren 8an. Udalak aurreratu duenez, egun horretan, aldarrikapen-pankarta bategaz, urteetan zehar udalerrian inauguratu diren baldosa guztiak zeharkatzen dituen jai-ibilaldi bat egingo dute. Kalejira hori baldosa berria jarriko den lekuan amaituko da, eta bertan inauguratuko dute herritarrek proposatutako esaldia jasoko duen pieza berria.

ESALDIAK BIDALTZEKO EPEA. Udalaren arabera, urtarrilaren 31ra arte bidali ahal izango dira proposamenak.

Aurreko urtean, «Gizonak berdintasunerako aldaketa eragile izatea nahi dugu» izan zen esaldi irabazlea; aurten, berriz, proposamenak bidaltzeko hiru bide egongo dira: QR kodearen bidez, berdintasunerakobidean.urduliz@gmail.com helbidera edo 747 499 814 WhatsApp zenbakira idatziz.

AZAROAK 25. Proiektua Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunaren esparruan sartuta dagoenez, azaroaren 25ean, Urdulizko Kultur Etxean elkarretaratze bat egingo dute «indarkeria matxista mota guztiak gaitzesteko».

Bertan, Urdulizko Basakick Urduliz kluba izango da manifestua irakurriko duen taldea. ◂

Bidali zure esaldia QR kodigoa eskaneatuz.





Berango Berangoko Berbalagunak

Euskaraz bizitzeko gune baten aldarria

Berangoko Berbalagunek bertan euskaraz berba egin eta harremanak euskaraz eraikitzeko guneak behar dituztela aldarrikatu dute sinadura-bilketa baten bidez.

LAURA FONTALBA COLOMO ▶



Berangoko 200 euskaltzaleren sinadurak lortu gura dituzte. BERANGOKO BERBALAGUNAK

Almudena Zugasti, Ana Martin, Blanca Saitua, Elena Rubio, Julia Hierro, Rossana Abascal eta Txaro Arceniega izan dira manifestuaren lehen sinatzaileak. Berbalagun-taldeetan euskaraz «hitz egiteko ohitura eta konfiantza» hartu duten herritarrak dira. Euren hitzetan, proiektu horri esker, euskaraz hitz egiteko aukera izan dute, «lagunarteko giroan eta elkarrengandik ikasiz», eta euskaraz «eroso» sentitzen direnak eta ikasten ari direnak elkartuz.

Eurentzat egitasmoa gune «atsegin» eta «segurua» bada ere, Berangon ez dutela horrelako talderik azaldu dute; beraz, Berbalagunetan parte hartzen duten berangoztarrek inguruko herrietara joatera behartuta ikusten dute euren burua, besteak beste, Getxora edo Sopelara, egitasmoa martxan dagoen herrietara.

Taldearen iritziz, Berbalagun proiektua herritarrak batzeko tresna ederra izan daiteke, euskararen erabilera sustatzen duena eta herrian euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzen dituena. Hori dela eta, aldarrikapen argi batez zuzendu dira Udalera: «Beharrezko urratsak egin ditzala herrian Berbalagun proiektua martxan jartzeko, eta horretarako behar diren baliabideak eta elkarlanerako aukerak azter ditzala».

Orain, Udalari sinadura-bilketa «informala» baina sendoagoa aurkezteko helburuagaz, Berangoko 100 edo 200 euskaltzaleren sinadurak lortu gura dituzte.

Horretarako, abenduaren 3aren bueltan, Euskararen Eguna aitzakiatzat hartuta, herritarren artean sinadurak biltzea aurreikusi dute. Dena den, dagoeneko martxan dago sinadura-bilketa, eta QRaren bidez ere eman daiteke babesa. ◀

Sinadura-bilketan parte hartzeko goiko QR kodigoa eskaneatuta.



Uribe Kostako AEK

LEIOAN ERE ZURE EUSKALTEGIA BILATU!

LEIOAko LAMIA AEK euskaltegia
Dr. Luis Bilbao Libano 8 (barruko plazan, postetxearen aurrean)
94 464 60 63 - 688 758 203
lamia@aek.eus

URIBE KOSTAKO AEK- BILATU ZURE EUSKALTEGIA!!!
Leioa – 94 464 60 63 – lamia@aek.eus
Getxo – 94 430 47 34 – lauaxeta@aek.eus
Plentzia – 94 677 36 07 – jentilbaso@aek.eus
Gorliz – 94 677 36 46 – jentilbaso@aek.eus

@URIBEKOSTAKOAEK

Lemoiz Udal egutegia

Egutegirako argazki lehiaketako irabazleak jakinarazi dituzte

Lemoizko Udalak 2027. urteko udal egutegirako aukeratutako argazkien artean herritarren bozka gehien jaso dituzten hiru argazkiak zeintzuk izan diren jakinarazi du. Honako hauek izan dira argazki irabazleak: *Aitxitxe Andres bizikletan*, 91 botogaz (% 42,1), *Potongo bizirik*, 69 botogaz (% 31,9) eta *Itsaso haserretua*, 65 botogaz (% 30,1). Boto gehien jaso dituzten hiru argazkien egileek tokiko produktuez osatutako saski bana jasoko dutela sari gisa gehitu du Udalak. Aurtengo edizioan 216 boto jaso dira, iazko 186 botoen aldean, hau da, parte-hartzeak % 16,1 egin du gora, Udalak azaldu duenez.

Izan ere, aurreko urtean bezala, Udalak argazki lehiaketa bat martxan jarri zuen irailean, 2027ko egutegia osatuko duten irudiak aukeratzeko. Gaiari dagokionez, argazkiek Lemoizegaz eta bertako jendeagaz zerikusia izatea izan zen baldintza bakarra. Urriaren 30ean, argazkigintzako profesional batek, Armintzako Kultur Etxeko kultur dinamizatzaileak eta Udaleko bi ordezkarik osatutako epaimahaiak egutegia osatuko duten 12 argazkiak aukeratu zituzten. Horren ondoren, hautatutako argazkiak ikusgai egon ziren Armintzako Kultur Etxean azaroaren 2tik 9ra, eta herritarrek gustukoen zituzten hiru argazkiak bozkatzeko aukera izan zuten. Udalak 2027ko egutegia doan banatuko du udalerriko herritarren artean.

Hiru argazki irabazleez gain, hauek dira egutegia osatuko duten beste bederatzi argazkiak: *Ilunabarra*, *Argiaren aterpean*, *A bonitos*, *Por el camino verde*, *Lasai asko*, *Jatako Urritza eta Sardinerreka*, *Urbieta urtegia*, *Eklipsea* eta *Ortzadarra*. ◂

Barrika Azaroak 25

Barrikan azaroaren 25erako egitaraua antolatu dute

Elkarretaratzea, omenaldia eta zineforuma egingo dira data horretan, Emakumeen Hitza elkarteak eta Barrikako Udalak antolatuta.



Elkarretaratzea Emakumeen Biribilgunean izango da, 12:30ean.

Azaroak 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, Udalak eta Emakumeen Hitzak jarduera ezberdinak antolatu dituzte Barrikako hainbat tokitan, *Emakumeok bizirik, aske eta beldur barik* lelopean.

Lehenik, goizeko 10:30etatik 12:15era eguneroko mikromatxismoak detektatzen ikasteko tailerra egingo dute, Emakumeen Hitzaren lokalean –Udaletxeko errepidea 2–. Udalak esan duenez, tailerrak genero-desberdintasuna betikotzen duten jarrera sotil eta normalizatuetan jarri gura du arreta.

12:30ean, Emakumeen Biribilgunean elkarretaratzea egingo dute. Ekitaldi nagusi horretan Aintzane Garayri omenaldi bat eskainiko diotela adierazi du Udalak. Garay Barrikako emakume gaztea zen eta 2005ean indarkeria matxistaren biktima izan zen.

Amaitzeko, 17:30ean zineforuma egingo dute Emakumeen Hitzaren lokalean. *Miss Carbon* pelikula proiektatuko dute, lan sektore maskulinizatu batean sartzeko borrokatzen duen emakume trans baten istorioa kontatzen duena. ◂



ABENDUAK 3

Barrikan ere,

euskaraz bizi nahi dugu!

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2026

barrika UDALA



Ilustrazioa: Mikel Casal

Gure **hizkuntzaren**
alde egiten dugu, ez
gure *ondarea* babesteko
bakarrik, baizik eta
baita gure *gizartearen*
sustraitzea eta kohesioa
bultzatzeko ere.

LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

Plentzia Portuko amarralekuak

204 amarralekuen zozketa berria egingo dute abenduan

Eusko Jaurlaritzak urtea amaitu baino lehen konpondu gura du 204 amarralekuen esleipenaren inguruan sortutako auzia.

Euskadiko Kirol Portuak erakundeak zozketa berriaren proposamena epaitegiari helarazi dio, baina horrek ez du esan gura data behin betiko zehaztuta dagoenik.

Arazoaren jatorria 2021ean dago, Euskadiko Kirol Portuak erakundeak Plentziako kirol-portuko amarralekuak esleitu zituenean. Erabakiaren aurka hainbat errekurtso aurkeztu zituzten, eta horien ondorioz, hamar epai irmok hasierako esleipenak baliogabetzera behartu zuten erakundea.



Zozketa berria

Helburua ebazpen judizialak betetzea eta eragindako pertsona guztien arteko tratuberdintasuna bermatzea da.

Hala ere, bertan zeuden itsasontziei amarralekuetan jarraitzeko baimena eman zieten, behin-behinean eta baimena edozein unetan kentzeko aukeragaz. Egoera horrek ziurgabetasuna sortu du portuko erabiltzaileen artean.

Urriaren 14ko ebazpen judizialak prozedura desblokeatzeko aukera eman du. Horren arabera, esleipen berria 2021eko deialdiaren oinarriak errespetatuz egin beharko da, baina itsasontzien tamainak kontuan hartuta, portuko ur-azalera ahalik eta ondoen aprobetxatzeko. ◂

Publierreportajea

museoplentzia.org

ONDARE BULEGO BERRIA

Memoria berreskuratzen

Plasentia de Butron Museoak ondare bulego berria jarriko du martxan Plentzian, herriko historia eta ondarea herritarrengana eta bisitariengana hurbiltzeko.

MUSEO PLASENTIA DE BUTRON MUSEOA

Egitasmoak bi gune izango ditu: Billabasoena lokala eta Udaletxeko beheko solairua. Lehenengoan, jendearentzako arreta eskaintzeaz gain, Plentziaren historia gaur egunera arte azaltzen duten 40 pieza baino gehiago egongo dira ikusgai: koadroak, maketak, objektuak eta merkataritza-errotulu zaharrak. Halaber, bisita gidatuetan, hitzaldietan, mendi-ibilaldietan eta bestelako jardueretan izena eman ahal izango da bertan.

Ondare bulegoak ikerketarako eta kontsultarako gune bat ere izango du: Uribe Kostako historiari buruzko 70 liburu baino gehiagoko liburutegia eta museoaren artxiboko XVIII. eta XX. mendeen arteko 500 dokumentu baino gehiago izango dira eskuragarri. Gainera, museoaren piezen zaharberritze-prozesuak bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da.

Ordutegiak

Plentziako ondare bulego berriak eta Plasentia de Butron Museoak ordutegi berdina izango dute. Martitzenetik zapatura, 10:00etatik 18:00etara, zabalik egongo dira; eta domeketan, 10:00etatik 14:00etara.

Udaletxeko beheko solairuan, berriz, Ondare aplikazio berria izango da protagonista. Tresna digitalaren bidez, Plentziako alde zaharra, itsasadarra eta eraikin esanguratsuenak ezagutu, toponimia-mapak kontsultatu, desagertutako ondarearen 3Dko berreraikuntzak ikusi eta umeentzako jokoetan parte hartu ahal izango da.

Bulego berriak jarduera-programazio propioa ere izango du. Azaroan bertan, museoa ezagutzeko saioak, Barrikatik Plentziara antzinako errege-bidetik egingo den mendi-ibilaldi gidatua eta hainbat hitzaldi antolatuko dituzte. Horien artean, Plentziako *Titanic*ari buruzko aurkezpena egingo dute, hondoratutako ontziaren orain arte argitaratu gabeko irudiekaz.

Horren guztiaren osagarri, Plasentia de Butron Museoak doako sarrera izaten jarraituko du, eta sei hilabetero berritzen den 1.500 pieza baino gehiagoko bilduma ezagutzeko aukera eskainiko du. Ondare bulegoa, berriz, martitzenetik zapatura egongo da zabalik, 10:00etatik 18:00etara, eta domeketan, 10:00etatik 14:00etara. ◂

Gorliz Gaztelekuko langilearen kaleratzea

Iktusa izan dutenentzako ariketa-programa berria

Gorlizko Ospitaleak eta Getxo Kirolakek elkarlanean jarri dute martxan iktusa izan duten pertsonentzako ariketa fisiko gainbegiratuko programa pilotua.

Iktusa izan ondoren, ospitaleko errehabilitazioa amaitzeak ez du zertan suspertze-prozesuaren amaiera izan. Horri jarraipena emateko, Gorlizko Ospitaleak eta Getxo Kirolakek programa pilotu bat jarri dute martxan, pazienteek ariketa fisikoa egiten jarraitu eta eguneroko bizimodura itzultzeko bidean aurrera egin dezaten.

Gehienez 24 lagunek hartuko dute parte ekimenean. Hamabi astez, taldeko ariketa-saioak egingo dituzte Gobelako kirol-instalazioetan. Programa iktus iskemikoa edo hemorragikoa izan duten eta Gorlizko Ospitalean errehabilitazio nagusia amaitu duten helduei zuzenduta dago, bereziki mugitzeko zailtasun arinak edo ertainak dituztenei. Ariketak parte-hartzaile bakoitzaren beharretara egokituko dituzte, eta ospitaleko profesionalek hautatuko dituzte pazienteak.

Saioen bidez, indarra, oreka eta mugikortasuna lantzeaz gain, pazienteen autonomia eta konfiantza berreskuratzea eta bizimodu aktiboa sustatzea dute helburu. Hiru hilabetez programaren segurtasuna, bideragarritasuna eta parte-hartzaileen jarraipena aztertuko dituzte, etorkizunean antzeko ekimenak beste pertsona-talde batzuetara zabaltzeko aukera baloratzeko. ◂



Iktusa, datutan

Iktusa garuneko odol-fluxua eteten denean gertatzen da, odol-hodi bat buxatzeagatik edo hausteagatik. Ondorioz, mugitzeko, hitz egiteko edo eguneroko jarduerak egiteko zailtasunak sor daitezke. Osakidetzaren arabera, 2024an 3.500 kasu inguru artatu zituzten Bizkaian.



Uribe Kosta 38. Rikardo Arregi Kazetaritza saria

HIRUKA Kazetaritza sariko finalisten artean

Aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza sariko finalisten artean HIRUKAko Menopausia erreportaje sorta aukeratu dute.



Menopausia erreportaje sorta lau finalisten artean aukeratu dute. ANDOAINGO UDALA

Andoaingo Udalak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesagaz banatzen du urtero Rikardo Arregi Kazetaritza saria, eta aurtengoa 38. edizioa da. Bi sari nagusi ematen dituzte, biak 9.000 eurokoak: Kazetaritza saria bata eta Komunikazio saria bestea. Sarien helburua euskarazko kazetaritzaren eta komunikazioaren «kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza» sustatzea da, eta epaimahaikideek 2025eko irailaren 16tik 2026ko irailaren 15era egindako lanak hartu dituzte kontuan. Guztira, zortzi finalista dira, lau sari bakoitzeko. Zorionez, HIRUKAko Menopausia erreportaje sorta Kazetaritza sariko lau finalisten artean aukeratu dute aurten.

2026ko apirilean, Izaro Garcia Velaskok eta Ander Zarragak menopausia lehen lerrora ekartzeko erabakia hartu eta HIRUKAko apirileko aldizkariaren azala eskaini zioten. Rikardo Arregi Kazetaritza sariko epaimahaikideek erabaki hori nabarmendu dute erreportaje sorta finalisten artean hautatzerako orduan. Gainera, papereko erreportaje nagusiaz gain, webgunean lau elkarrizketa eta kale-inkesta bat argitaratu izana ere nabarmendu dute, psikologo, sexologo, fisioterapeuta, emagin, ginekologo eta herritarren ahotsak uztartuta.

«Uribe Kostatik landutako tokiko kalitatezko kazetaritza» dela nabarmendu dute epaimahaikideek.

Bestalde, kazetariek menopausiaren inguruko bizipenak eta ondorioak hainbat ikuspegitatik landu izana azpimarratu dute, baita gaiari buruzko informazio erabilgarria eskaintzea ere. Era berean, lana «Uribe Kostatik landutako tokiko kalitatezko kazetaritza» dela nabarmendu dute.

Aurtengo edizioko epaimahaia Miren Berasategi Zeberiok, Eneko Bidegain Airek, Itxaro Bordak, Angel Errok, Pantxika Maitiak eta Libe Mimenzak osatzen dute; eta mahaiburua Marta Lasa Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzia da. ◂







Kutxabanken ere zu ● zeu izan.

Bizi euskaraz.

Kutxabankeko harremanetarako aukeratu euskara.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu.
Informa zaitez.

Euskaraz :)
kutxabank

Kutxabanken Hizkuntza Politika
ikusi hemen: **www.kutxabank.eus**

Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077.
Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa,
0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.



Natxo Gonzalez Surflari profesionala

«Oraindino borrokan nabil, inoiz baino hobeto»

Zazpi urtegaz hasi zen surfean eta, gaurkoz, azken urteetako proiekzio handiena izan duen surfalaria da. Plentzian jaiota eta surfean Plentzian hazita, aurten, Irlandako Mullaghmoren hartutako olatuari esker, *Ride of the Year* sariaren irabazlea izan da. Natxo Gonzalezek dioenez, bere idoloek jasotako saria, orain berak jasotzea sinestezina izan da. Zorionez, harantzago, badaki non dagoen surfaren mamia: «Etxean lagunekaz surfean aritzen naizenean ezin naiz zorionekoago sentitu».

TESTUAK: **LAURA FONTALBA COLOMO** • ARGAZKIAK: **JON ASPURU** ▶

Lehengusuak oparitutako *bodyboard* bategaz hasi zen uretan sartzen. Uda batean, bere gainean zutik jarri zen, eta azkar sortu zitzaion taula bat izateko gogoa. «Ni, burugogor-burugogor, aurrezten hasi nintzen. Aste-akabuetako paga guztiagaz itsulapikoa bete, eta *Eukaliptus Surf* dendan bertan apurtu nuen. Dirua ez zitzaidala heltzen gogoratzen dut, beraz aitari esan nion: 'Mesedez...'. Handik taulagaz atera nintzen, eta, hortik, mundura», dio. 17 urtegaz *Punta Galea Challenge* irabazi zuen, eta, handik aurrera, nazioartean arreta bereganatu zuen. Bertan lortutako emaitzei esker, mundu osoko txapelketetara gonbidatzen hasi zioten. 2014an, *Big Wave World Tour* munduko zirkuituan sailkatu zen; zirkuituko surflaririk gazteena bihurtuz 18 urte besterik ez zituela. «Garai hartan historiako gazteena izan nintzen», azaldu du harrotasunegaz, zera gehituz: «Prestigio handiko zirkuitua zen; mundu osoko hamabi surflari baino ez ginen, eta ni horietako bat nintzen 18 urtegaz. Jauzi handia izan zen, hemen, etxean, horrelako olatuak izateari esker».

2018an, Portugalen, Nazareko txapelketan hirugarren postu historiko bat lortu ondorioz, munduko top hamarrean sartzea lortu zuen; eta 2018/2019 denboraldiaren amaieran, *World Surf League*ko sailkapen orokorrean bosgarren postuan amaitu zuen mundu mailan. Horri esker hurrengo denboraldirako zuzeneko txartela ziurtatu zuen.

Gaztetatik lehian

17 urtegaz, Punta Galea Challenge irabazi zuen. 18 urtegaz, Big Wave World Tour munduko zirkuituan sailkatu zen, zirkuituko surflaririk gazteena bihurtuz. 2018an, Nazareko txapelketan munduko top hamarrean sartzea lortu zuen. 2022an, La Vaca Gigante txapelketako garailea izan zen; eta, garuneko lesio baten hiru urteko errekuperaketaren ostean, aurten, Big Wave Challenge sarietan Men's Ride of the Year sari nagusia irabazi du.

Aurten, 2026ko irailean *Big Wave Challenge* sarietan *Ride of the Year* sari nagusia irabazi du Irlandako Mullaghmore Headen hartutako olatu ikaragarri bati esker.

Lorpen bakoitzaren atzean prestaketa fisiko eta mentala egon da; eta, tartean, hiru urte txarrak eta gogorrak ere bizi izan ditu. «2021ean bi lesio oso larri izan nituen eta, hortik aurrera, hiru urte oso txar izan ditut, garuneko kalteagaz. Ziurgabetasun handiko momentuak izan dira, oso momentu ilunak, eta surfak bigarren mailako garrantzia hartu zuen. Nik ondo egon gura nuen, adibidez, zugaz elkarrizketa on bat izan, eroso egon eta minik ez izan», azaldu du. Garuneko lesioaren ostean, fisikoki zein mentalki errekuperatu behar izan zen: «Lau eskailera igo eta guztiz nekatuta geratzen nintzen». Dioenez, uretara berriz itzuli zenean, olatuen gorenera ere ez zen heltzen: «Egun batean buelta eman eta uretatik atera nintzen». Hala ere, ez zuen inoiz amore eman. Hiru urte horiek prozesu «oso gogorra» izan arren, ilusioa gauza txikietan aurkitu zuen berriz: «Kalera irtetea, eguneko argia ikustea, eguzkia hartzea, paseotxo bat ematea, norbaitegaz hitz egitea edo gutxi gorabehera egonkor egotea».

Apurka-apurka berriro surfean aritzen hasi zen, baina inoiz ez zuen imajinatu Nazareko olatuaren ostean —bere ibilbideko momenturik gorena izan zena, 10eko puntuazio perfektua lortu baitzuen— hura bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa izango zen beste momentu bat biziko zuenik. «Uste dut Mullaghmoreko olatua hartzea nire bizitzako eta nire ibilbideko momenturik gorena izan dela, eta ez nuen sekula imajinatuko gertatutako guztiaren ostean», onartu du. Izan ere, egoera «hain ilun» bat igaro ostean, berarentzat uretara sartzea bera jada irabaztea zen.

***MEN'S RIDE OF THE YEAR* SARIA.** Natxo Gonzalezek 2026ko *Big Wave Challenge*ko *Men's Ride of the Year* saria irabazi zuen Irlandako Mullaghmore Headen hartutako olatu «ikaragarri» bati esker. Berak hartutako olatua Mullaghmoren arraunean inoiz hartu den olaturik astunena eta handiena izan zen. Hau da, olatuaren abiadurara egokitzeko eta hura hartzeko, besoen indar hutsagaz egin zuen arraun, inolako kanpoko laguntzarik barik. Lorpen «ikaragarria» bada ere, Gonzalezek helburu hori bere planetan ez zegoela onartu du. Nolanahi ere, pasa den neguan, Mullaghmorera bizitzera joatea erabaki zuen. Furgoneta, uretako motoa eta taulak hartu, eta ferryan joan zen. «Bi hilabete eta erdi eman nituen han, olatu horietan egunero surfean aritzean zentratuta; nire mugak pixka bat gehiago gainditzen saiatzen».

Surflariak gogoratu duenez, egun hartan dena «oso perfektua» zegoen. Normalean, Irlandan, ekaitzak eta euria ohikoak badira ere, egun hartan ezohiko baldintzak topatu zituen: eguzkia zegoen, haizea «oso leuna zen» eta urte askotan ikusi gabeko baldintzak ziren; beraz, «oso ondo» sentitzeko aukera izan zuen. «Segurtasun-talde ikaragarria genuen atzean, kamerak uretan eta uretatik kanpo... Azkenean, nire mugak gainditzeko eroso sentitu nintzen, eta hala izan zen. Nire bizitzako olatua hartu nuen, neurri handi batean, inguruan nuen jende guztiari esker», gogoratu du.

2025eko abenduaren 22an, Mullaghmoreko olatu hura hartu ostean, etxera bueltatu zen eta hamar egun inguru egon zen «airean bezala». Horrelako momentuetan bizitako adrenalina, intentsitatea eta emozio indartsu guztiak «jaisteko» denbora behar dela azaldu du. «Niri *Ride of the Year* eman izana, nire idoloek jaso duten sari bat izanda, sinestezina egiten zait. Nik beti Shane Dorian aipatzen nuen, nire erreferentzia eta nire idoloa izan delako, baina oso urrun ikusten nuen pertsona bat zen; eta orain ni horren parte izatea sinestea kostatzen zait. Oraindino denbora beharko dut», berretsi du.



Baldintza bikainak

Normalean, Irlandan, ekaitzak eta euria ohikoak badira ere, egun hartan ezohiko baldintzak topatu zituen: eguzkia zegoen, haizea «oso leuna zen», urte askotan ikusi gabeko baldintzak ziren.

Prestaketa mentala

«Lesioek eta gainerako guztiak ere, azkenean, nolabait indartsuago egiten zaituzten gauzak dira»

«Ziurgabetasun handia neukan, eta oraindino daukat: 'datorren urtean zer?' Baina hemen jarraitzen dugu. 31 urte ditut eta oraindino borrokan nabil, inoiz baino hobeto»

PRESTAKETA MENTALA. Olatu handien aurrean prestaketa fisikoa «izugarria» dela deritzo, baina askotan frustrazioari aurre egin behar zaio, eta, horretarako, prestaketa mental handi bat ere izan behar duzu.

Gonzalez leku «izugarrietan» ibili da surfean, eta, horri esker, esperientzia handia badauka, baina itsasoan egoteaz eta esperientzia izateaz gain, beste baldintza batzuk ere zure alde egon behar dira, eta horiek, batzuetan, ez daude inoren menpe. «Hawaiira joan nintzenean, han dagoen itsaso ikaragarrian aritu nintzen surfean, baina uretan sartu nintzenean ez nuen olatu bakar bat ere ez hartu. Batzuetan hori gertatzen da: Hawaiiraino joaten zara eta ez duzu olatu bakar bat hartzen». Horregatik horrek sortu dezakeen frustrazioaren aurrean, prestaketa mentala ezinbestekoa dela nabarmendu du.

Berak frustrazioari aurre egiteko beharra txikitatik ezagutzen duela dio. Izan ere, 2008. urtearen inguruan egondako krisi garaiak ere nabaritu zituen: «Garai hartan Quiksilverrek babesten ninduela gogoratzen dut. Egunaren arabera, barruan nengoen edo kanpoan nengoen, barruan, kanpoan... Nire emaitzak onak izanda ere. Horrek oso txikitatik mentalki indartsu egin ninduen». Gazte zenetik bakarrik bidaiatzea, etengabe bere erosotasun-eremu-



Natxo Gonzalezek 17 urtegaz *Punta Galea Challenge* irabazi zuenetik, munduko hainbat txapelketatan parte hartu du. JON ASPURU

tik irten behar izatea, leku batetik bestera joatea indartsu izateko gaitasun hori lantzeko ere balio izan diote: «Lesioek eta gainerako guztiak ere, azkenean, nolabait indartsuago egiten zaituzten gauzak dira».

Orain, bere belaunaldiko surflari profesionalak «esku bateko hatzamarrekaz» zenbatu daitezkeela azaldu du, beraz, zorionezkoa sentitzen da. Surflaria izateko erabakia hartu zuenean, ondo aterako zela esaten zionik inor ez zegoela dio, baina horrek ez zion gelditu: «Ziurgabetasun handia neukan, eta oraindino daukat: 'datorren urtean zer?' Baina hemen jarraitzen dugu. 31 urte ditut eta oraindino borrokan nabil, inoiz baino hobeto».

ETA ORAIN ZER? Jende askok hurrengo urteetan zer egingo duen ere galdetu egiten dio eta berak argi dauka: egoera fisiko ezin hobean egoten saiatzea eta, baldintzak betetzen direnean, %200ean egon eta bere mugak askoz gehiago gainditzea. «Nire bizitzako gauza asko albo batera utzi ditut benetan pasioa dudan zerbaitengatik, baina benetan pasioa duzun zerbait badago, horren bila joan behar zara eta dena eman behar duzu», adierazi du.

Hala ere, bere azken lorpena ez zuela espero berretsi du. 2025eko azaroan, bere guru Ramon Navarro txiletarrari bere mugak inoiz gehiago gainditu ezingo zituen moduan gainditu zituela esan zion, baina Navarrok ideia hori gezurtzat hartu zuen azkar. Abenduan hartutako olatua arrazoia eman zion, Gonzalezek *Men's Ride of the Year* saria lortu baitzuen: «Ez dakizu inoiz non dauden mugak, baina egunero egoera horietan egoten jarraitzeko, olatu handiak hartzen jarraitzeko ahalegina egin gura dut. Azkenean, horrek bizirik sentiarazten nau eta bizitza horretarako da».

> «Niri *Ride of the Year* eman izana, nire idoloek jaso duten sari bat izanda, sinestezina egiten zait»



Olatu «ederra» hartzea segundo batzuetako kontua baino ez da. Esperientzia «ikaragarri» bakoitzaren ostean, etxera bueltatzeko momentua heltzen da beti. «Etxean lagunekaz surfean aritzen naizenean ezin naiz zorionekoago sentitu», azaldu du, bertan ez zaiolako ezer falta: Mundakan, Meñakozen edo Galean, mundu-mailako olatuak gehien maite dituen jendeagaz partekatu ditzakeelako. Zorionekoa sentitzen dela dio, itsasoa etxetik hamar minutura izatea ez da ohikoena, eta txikitatik hondartza modu naturalean bizi ahal izatea zorte handia izan dela uste du. Munduko beste leku batean bizi izango balitz, agian hau guztia ez zela inoiz gertatuko susmatzen du. Azpimarratu duen moduan, azkenean, olatuak «iragankorrak» dira: «Badira bizitza osoan gogoratuko dituzun olatuak, baina oso azkar pasatzen dira. Garrantzitsuena esperientziak nogaz partekatzen dituzun da». ◂

Azaroa-abendua

Barrika

Azaroak 25, eguaztena

Tailerra: *Mikromatxismoak detektatzen ikasi*

10:30 | Emakumeen Hitzaren lokalean

Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira.

Azaroak 25, eguaztena

Kontzentrazioa

12:30 | Emakumeen Biribilgunean

Barrikako Udalak eta Emakumeen Hitzak deituta. Aintzane Garayri omenaldi bat eskainiko diote.

Azaroak 29, domeka

Goierriko jaiak

Goierrin

Hainbat jarduera egunean zehar.

Berango

Abenduak 4, barikua

Umeentzako tailerrak eta jolasak

17:00 | Berangoeta Kultur Etxean

Euskararen Egunaren harira. Ludotekan edo ludoklubean izena eman behar da azaroaren 23tik 27ra.

Abenduak 12, zapatua

Helduentzako antzerkia: *Beroa dago... eta gu gara!*

19:00 | Fernando Ansoleaga Antzokian

Euskararen Egunaren harira. Perimenopausiaren inguruko umorezko ikuskizuna.

Abenduak 13, domeka

Dantza Plaza

12:00 | Udal pilotalekuan

Euskararen Egunaren harira.

Erandio

Azaroak 25, eguaztena

Mobilizazioa

12:00 | Irailaren 23a plazan

Erandioko Emakumeen Elkarteak deituta.

Azaroak 25, eguaztena

Elkarretaratzea

19:30 | Euskadi plazan

Erandioko Emakumeen Elkarteak deituta.

Getxo

Azaroak 25, eguaztena

Mobilizazioa

18:30 | Xake plazan

Itaia Uribe Kostak deituta.

Azaroak 25, eguaztena

Manifestazioa

19:00 | Santa Eugenia plazan

Itzubaltzetako Talde Feministak deituta.

Abenduak 2, eguaztena

Argia Ereiten Euskara Saria

19:00 | Muxikebarriko Arrigunaga aretoan

Euskararen Egunaren harira.

Gorliz

Azaroak 28, zapatua

Ekitaldi solidarioa: *La luz de Martina*

10:00 | Gorlizen

FIRES sindromeagaz lotutako La luz de Martina elkartearen alde dirua biltzeko.

Abenduak 3, eguena

Euskararen Eguna

17:30 | Elizako plazan

Egitarau osoa hiruka.eus atarian.

Leioa

Azaroak 25, eguaztena

Elkarretaratzea

11:30 | Boulevardean

Leioako Udalak deituta.

Abenduak 3, 5 eta 9

Sexu-indarkeriaren sentsibilizazio eta prebentziorako erakusketa

18:00 | Kultur Leioan

Bisita gidatuak eskainiko dira.

Abenduak 4, barikua

Antzerkia: *Bi baso bat ur*

20:30 | Kultur Leioan

14 urtetik gorakoentzat.

Lemoiz

Azaroak 25, eguaztena

Elkarretaratzea

12:00 | Udaletxean

Lemoizko Udalak deituta.

Abenduak 3, eguena

Egur jolasak

17:00 | Urizarko frontoian

Euskararen Egunaren harira.

Abenduak 3, eguena

Umeentzako antzerkia: *Hotzeder*

18:00 | Urizarko gelan

3-6 urteko umeentzat.

Plentzia

Azaroak 26, eguena

Hitzaldia: *Gizonen papera indarkeria matxistaren aurrean*

18:30 | Goñi portalen

Gizonei zuzenduta.

Azaroak 29, domeka

Ibilbide gidatua Barrikatik Plentziara

10:00 | Goierri errepideko aparkalekuan

Izen-emateak: 946 773 725, 628 557 393 edo contacto@museoplentzia.org.

Abenduak 3, eguena

Kontzertua: Mikel Urdangarin

20:00 | Danontzat gaztetxean

Euskararen Egunaren harira.

Sopela

Azaroak 25, eguaztena

Manifestazioa

19:00 | Udaletxe plazan

Sopelako Sare Feministak eta Sugarrik deituta.

Abenduak 2, eguaztena

Antzerkia: *Nor naizen baneki*

19:00 | Kurtzio Kultur Etxean

13 urtetik gorakoentzat.

Abenduak 3, eguena

Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Aitor Etxebarriazarraga, Jon Maia eta Paule Loizaga

19:00 | Kurtzio Kultur Etxean

Euskararen Egunaren harira.

Urduliz

Azaroaren 2tik 30era

Baietz asmatu! lehiaketa

Urdulizeko Kultur Etxean

Informazio gehiago hiruka.eus atarian.

Azaroak 25, eguaztena

Elkarretaratzea

18:00 | Urdulizko Kultur Etxean

Urdulizko Udalak deituta.

Azaroak 27, barikua

Kontzertua: Motelak

19:00 | Antsonekoa plazan

Azaroak 28, zapatua

Kantu kalejira

18:00 | Marutzen

Euskararen Egunaren harira. Beti Lagunak eta Zuzterrak taldeek girotuta.

AZAROAK 21_larunbata
Auditorium // 19:00 // 10 €

TRAVESÍA
Aurkene Núñez (Euskadi)



AZAROAK 22_igandea
Auditorium // 12:00 // 6 €

ALAI FAMILIAN
Lasala (Euskadi)



AZAROAK 27_ostirala
Auditorium // 20:30 // 10 €

MI 3ER ACTO
Eguzki Zubia (Euskadi)



ABENDUAK 4_ostirala
Auditorium // 20:30 // 10 €

BI BASO BAT UR
Metrokoadroka (Euskadi)



ABENDUAK 11_ostirala
Auditorium // 20:30 // 10 €

EL FUNERAL
Teatro Che y Moche (Zaragoza)



ABENDUAK 18_ostirala
Auditorium // 20:30 // 10 €

LAS BINGUERAS DE EURÍPIDES
Las niñas de Cádiz (Andaluzia)



Leioa KULTURA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

Gutxietsitako landa

Gaur egun gauden tokira iristeko, gizakiok landareez baliatu gara belaunaldiz belaunaldi. Izan ere, sendabelarrek sendatu gintuzten, haritzak gure etxeen zutabe eta habeetan kokatu genituen, arte-egurrak berotu gintuen, indaba zein gaztainek gosea asetu ziguten, hurritz-makilek maldan gora lagundu ziguten... Hala ere, landare horiekiko harremana eta beraien garrantzia guztiz ahaztu ditugu, eta zenbait kasutan ere, mespretxatzera heldu gara. Azken hori da otearen kasua, hain zuzen ere.

IÑAKI LARRETXI GALLASTEGI • LUKA MELENDEZ ARTEAGA ▶

Uribe Kostako aldatz eta buruak -landarik garaienak- lur txiro eta lehorrak izan dira betidanik, arrazoi geologikoak direla eta. Horrenbestez, eremu horiek ez ziren batere egokiak lantzarrak edota baratzeak mantentzeko, baina horrek ez zuen esan nahi baserritarrentzako erabilerarik ez zutenik. Izan ere, bertan ote (*Ulex gallii* eta *Ulex europaeus*, indaben eta akazien familiakoak) izeneko sastraka arantzatsu eta lekaduna lantzen zen —*ote-kodañe* erabiliz, kodaina labur eta gogorra—, lore horiak ematen dituena. Eta nahiz eta gaur egun otatzak soildu besterik egiten ez diren, XX. mendeko erdialdera arte zaindu, salerosi, arautu eta borrokatu ere egiten ziren gurean, artxibo historikoetan utzitako arrasto oparoak iradokitzen duenez.



Itsas labarretan otea ugaria izan ohi da.

Baina, ze erabilera izan zezakeen oteak uriboztarrentzako? Dokumentazio historikoan ageri den moduan, gutxienez hiru erabilera zituen Uribe-Butroen, beste hainbat eskualdetan bezala. Alde batetik, otea sats edo simaur bilakatzen zen soloak ongarritzeko. Horretarako, lehenago beharrezkoa zen etxaldeko kortan abereentzako ohe gisa (azpigarri) ipintzea, zapaldua izan zedin eta animalien gorotzekin nahasteko. Gero, otea erregai moduan erabilia izan da ere tradizionalki. Esaterako, 1786. urtean, Plentziako bi bizilagunek Barrikako Barrikabason otea mozteko eta beraien labeetan erabiltzeko baimena lortu zuten. Beranduago, 1909. urtean Maruri-Jatabeko udalak baimena eskatu zuen Gallarraga herri-mendian (hots, komunalean) moztutako otearen zati bat ka-



Ze erabilera izan zezakeen oteak uriboztarrentzako?

Alde batetik, otea sats edo simaur bilakatzen zen soloak ongarritzeko. Gero, otea erregai moduan erabilia izan da ere tradizionalki. Azkenik, otatzak elizateen zorrak ordaintzeko erabiliak izan ziren ere.

Zoritxarrez, eta azkenengo hamarkadetako aldaketa sakonek bultzatuta, otearen zein landare gehienen erabilerak atzean utzi ditugu, beraien izenak ahazteraino iritsiz ere.

rea: otea

robietan erabiltzeko. Azkenik, otatzak elizateen zorrak ordaintzeko erabiliak izan ziren ere. Hala izanik, 1855an eta helburu horrekin San Pablo mendiko (Erandio) otearen errematea aprobatu zen.

Otatzak herri-lurretan kokatu ohi ziren, eta ondorioz lursail horien kudeaketa egokia eta kontserbazioa munta handiko aferak ziren. Horren erakusle gisa, agiri zaharren bidez otearen inguruko ika-mika, istilu eta zorigaitzak gogora ekar daitezke. Adibidez, 1871. urtean Getxoko auzokideek Galeako herri-lurren gehiegizko ustiaketa salatu eta lekuaren hobekuntza eskatu zuten. Barrikan, 1884. urtean Barrikabasoko otea erretzeko lanetan ari zirela, Domingo de Artaduy ito egin zen sortutako ke-lainoaren eraginez. Bestetik, otearen lapurreta jarduera ohikoa ei zen gurean, eta horren harira auzi ugari ireki ziren: Plentziako Guzurmendin (1730), Lutxanan (1748), Gatikako Libaroa auzunean (1771), Berangoko Arrarte mendian (1776), Urdulizen (1806), Leioako Santsoenan (1889)... Baina baserritar mesfidatiak erne egoten ziren eta noiz edo noiz lapurrak harrapatzen zituzten ere; horrela gertatu zen 1940an, Berangoko auzokide batek ustezko lapurra harrapatu eta jipoitu zuenean.

Zoritxarrez, eta azkenengo hamarkadetako aldaketa sakonek bultzatuta, otearen zein landare gehienen erabilerak atzean utzi ditugu, beraien izenak ahazteraino iritsiz ere. Horrekin batera, landare horiei guztiei lotutako ezaguera, ohiturak, eta sinismenak galduz joan gara, paisaia tradizionalen kudeaketan ardatz izan ziren horienak.



Otea (*Ulex* sp.)



Aurke
Otea eta bestelakoak garraiatzeko asto-aparejoa
URTZI GOITI UGARTE

Oihane Amantegi Idazlea

«Duela urte bi ez nuen imajinatuko honi buruz hain libre hitz egiteko gai izango nintzenik»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

Hamar urte. Horrenbeste denbora behar izan du Oihane Amantegik bizitakoari izena jartzeko, gertatutakoa eraso sexual bat izan zela ulertzeko. «Erasoa ez zen modu argian gertatu, eta uste dut emakume askori gertatzen zaigula hori: momentuan ez dugula ikusten eraso bat jasaten ari garela». Urteak igaro ahala, bizitakoa beste begi batzuekaz ikusten hasi zen, ordura arte ulertu ezin izan zuenari zentzua aurkitu guran.

Prozesu horretatik jaio da *Arantzarik gabeko arrosa*, bizipen pertsonalak fikzioagaz uztartzen dituen eleberria. Gertatutakoaz jabetu zenean, salaketa judizialaren bideak sortzen zizkion kezken aurrean, beste modu bat bilatu zuen barruan zeramana kanporatzeko: literatura. Hasieran, idazketa aisialdiko kontua baino ez zen, baina pixkanaka, kontakizunak beste helburu bat hartu zuen. Antzeko egoerak bizi izan dituztenei euren burua istorioan ikusteko aukera eman gura die, baita oraindik gertatutakoa identifikatzeko hitzak aurkitu ez dituztenei ere. «Liburua indarkeria jasan dutenentzat edo jasateko arriskuan daudenentzat lagungarria izatea gustatuko litzaidake; euren burua identifikatzeko, gertatutakoa ulertzeko edo horri buruz hitz egitera animatzeko».

ARROSAREN ATZEAN DAUDEN ARANTZAK. Eleberriko protagonista Ihintza da, Bilbon bizi den 17 urteko gaztea. Batxilergoa amaitzear dago, etorkizunari buruzko zalantzak ditu eta musikaren munduan lehen pausoak ematen dabil. Lagun bategaz raparen munduan murgilduta, lehen kontzertua eskaintzeko prestatzen ari da. Baina gaztaroko ilusio eta erabakien artean, bestelako bizipen batzuei ere aurre egin beharko die.

Amantegik bere esperientziatik edan du istorioa sortzeko. Indarkeria sexualaz hitz egiteaz gain, harremanetan sarritan oharkabean pasatzen diren jokabideei ere erreparatu gura izan die; bereziki, maitasun erromantikoaren idealizazioari eta emakumeek besteak euren buruaren aurretik jartzeko jasotzen duten etengabeko presioari.

«Emakumeok askotan besteak ondo tratatu behar ditugula sentitzen dugu. Eta horrela, askotan gure arantzak ez ditugu ikusten. Arrosa polit bat izaten saiatzen gara, baina ahalegin horretan arantzak barrura sartzen zaizkigu»

Bizipenetik fikziora

Ihintzaren istorioak Amantegiren bizipen pertsonaletatik edaten du, baina ez ditu gertakariak bere horretan jasotzen. Egileak fikzioaren bidez berrantolatu ditu esperientziak, pertsonaiak eta emozioak, kontakizun propio bat sortzeko. Horrela, bere historia abiapuntu hartuta, beste askorentzat ere ezaguna izan daitekeen errealitate bati egin dio lekua.

«Batzuetan, harreman batean, besteari gehiegizko balioa ematen diogu, gure burua haren azpitik jartzeraino. Pentsatzen dugu gure maitasunarekin beste pertsona hori aldatu edo hobetu dezakegula».

Hortik dator liburuaren izenburuaren atzean dagoen metafora ere. Emakumeak arrosa ederrak izatea espero da, besteak zaintzea, atsegina izatea, inor ez mintzea. Baina, ahalegin horretan, norberaren arantzak ahaztea ere gerta daiteke. «Askotan sentitzen dugu besteak ondo tratatu behar ditugula. Eta, horretan, gure arantzak ez ditugu ikusten. Arrosa polit bat izaten saiatzen gara, baina ahalegin horretan arantzak barrura sartzen zaizkigu».

HITZAK NAHIKOA EZ DIRENEAN. Bizipen horiek guztiak kontatzeko, errealismo magikora jo du Amantegik. Izan ere, emozio batzuek ez dute beti azalpen zuzenik aurkitzen: «Batzuetan hitzak falta zaizkigu emozioak azaltzeko. Deskribapen hutsa motz geratzen da, eta metaforek pertsona batek benetan zer sentitzen duen hobeto ulertzen laguntzen digute».

Horren adibide da Ihintzaren haurtzaroko pasarte bat: berri txar bat jasotzean, negarrez hasten da, eta haren malkoek inguruko guztia urperatzen dute, bera uretan bakarrik geratu arte. Konortea galdu eta berriro esnatzean, ordea, ura desagertu egiten da guztiz. Fantasia, kasu honetan, hitzez azaltzen zaila den emozio bati forma ematen saiatzen da, irakurleak protagonistaren barruan gertatzen dena hurbilagotik senti dezan.

Laura Esquivelen *Como agua para chocolate* eta Bernardo Atxagaren zenbait lan izan ditu erreferente, besteak beste. Musikak ere berebiziko lekua hartu du istorioan, bai Ihintzaren istorioan, bai egilearen bizitzan: «Beti izan zait errazagoa sentitzen dudana musikaren bidez adieraztea, hitz eginez baino». Protagonistak ere abestietan aurkituko du bizitakoa ulertzeko eta barruan daraman mina askatzeko bidea.

Idaztea, ordea, ez da lan samurra izan. Bere bizipenak jendaurrean azaltzeak beldurra ematen zion hasieran, batez ere besteek zer pentsatuko zuten irudikatzean: «Beldur nintzen jendeak pentsatuko ote zuen arreta erakartzeko egiten



Oihane Amantegik indarkeria sexualaz eta isiltasuna haustearen garrantziaz hausnartu du bere lehen eleberrian.

nuela». Denboragaz, ordea, hasierako zalantzak apaltzen eta bere erabakia sendotzen joan dira: «Duela urte bi ez nuen imajinatuko honi buruz hain libre hitz egiteko gai izango nintzenik».

Prozesuak literaturagaz zuen lotura berreskuratzeko aukera ere eman dio. Txikitatik idatzi izan badu ere, urte luzez alde batera utzita izan ditu kontakizun fantastikoak. Eleberriari ekitean, euskaraz idazteko gaitasunari buruzko zalantzak sortu zitzaizkion, eta euskaltegian hasi zen, bere ideiak hobeto adierazteko tresna gehiago eskuratzeko.

Horrez gainera, ordura arte berarentzat idazten zuenak beste norbaiten begiradari aurre egin behar izan dio lehen aldiz. Bere testuak irakurleengana iritsiko zirela jakiteak segurtasun falta eragiten zion, eta zuzentzaileen laguntzagaz joan da eleberria gutxinaka-gutxianaka lantzen. Idazketa, hortaz, ez da bizitakoa kontatzeko bidea bakarrik izan; hau da, bere ahots literarioan konfiantza hartzeko ikasketa-prozesua ere izan da.

BARRUAN EZ GERATZEA. *Arantzarik gabeko arrosa* 12 kapitulutan banatuta dago, urteko hilabete bakoitzeko bat. Eskuz egindako akriliko-irudiek laguntzen dute kontakizuna osatzen, eta istorioaren amaierarako abesti bat zein bideoklip bat ere sortu dituzte. Azken hori liburuko QR kode baten bidez ikusi ahal izango da. Eleberriaren aurkezpena azaroaren 4an izan bazen ere, Durangoko Azokan ere txoko bat izango du hainbat postuen artean. Horrez gain, abenduaren 19an, 12:00etan, Casal liburu-dendan aurkeztuko du Amantegik, Gerediaga elkarteak antolatutako *Zu non, han DA* ekimenaren barruan.

> «Sufritzen dugunean, askotan gu geu sufrimendu horren errudunak garela pentsatzen dugu, baina ez da horrela. Beste askok ere antzeko zerbait sentitzen dute. Horregatik da hain garrantzitsua hitz egitea, partekatzea eta inguruan beste pertsona batzuk ditugula ikustea. Ez gaude bakarrik».

Baina orrialdetatik harago iristea da Amantegiren helburua. Liburua ez dago gazteei bakarrik zuzenduta; helduek ere badute zer hausnartu. Izan ere, bere ustez, indarkeria sexista prebenitzea guztion ardura da. Eta, horretarako, ezinbestekoa iruditzen zaio elkar tratatzeko moduari erreparatzea, baita sufritzen dugunean ingurukoengana jotzen ikastea ere.

«Sufritzen dugunean, askotan gu geu sufrimendu horren errudunak garela pentsatzen dugu, baina ez da horrela. Beste askok ere antzeko zerbait sentitzen dute. Horregatik da hain garrantzitsua hitz egitea, partekatzea eta inguruan beste pertsona batzuk ditugula ikustea. Ez gaude bakarrik».

Amantegik literaturan aurkitu du urte luzez barruan gordetakoa askatzeko modua, isilik eramandako bizipenei hitzak jartzeko bidea. Beste batzuek musikan, marrazketan edo antzerkian aurkituko dute, beharbada. Izan ere, ez dago minari aurre egiteko modu bakarra, ezta norberak sentitzen duena adierazteko bide zuzen bakarra ere: «Adierazteko modu asko daude, noski. Garrantzitsuena barruan ez gordetzea da». ◂

Iker Gordon, Markel Sierra eta Patxi Ziskar XX. Munduko Pilota Txapelketa

«2030ean, Euskadi m

Urrea lortzeko gogoz joan ziren Buenos Airesera, baina emaitzek bestelako zaporea utzi zieten. Hala ere, Iker Gordon, Markel Sierra eta Patxi Ziskar harrotasunez beteta itzuli dira XX. Munduko Pilota Txapelketatik.

LAURA FONTALBA COLOMO ▶

Euskal Pilota Selekzioak lehen aldiz Munduko Txapelketa ofizial batean parte hartu ostean, argi daukate: Euskal Herria bere izenagaz ordezkatzeko aukera izatea lorpen handia izan da. 2026ko urriaren 15etik 24ra Buenos Airesen eta Uruguaiko Colonia del Sacramenton jokatutako XX. Munduko Pilota Txapelketarako, Euskal Selekzioak 41 pilotari deitu zituen. Horien artean, Uribe Kostako sei pilotari aritu ziren erremintako modalitateetan: Kureneko Markel Sierra eta Armintzako Iñaki Urrutia larruzko paletan; eta Kureneko Iker Gordon eta Armintzako Jagoba Madariaga, Esteban Gaubeka eta Imanol Ibañez pala motzean. Haiekaz batera, Patxi Ziskar erremintako hautatzailea eta Kureneko kirol-zuzendaria ere izan zen txapelketan.

Hirurentzat esperientza «oso polita eta berezia» izan da; Ziskarrentzat, are gehiago, «hunkigarria». Gordonek dioenez, Munduko Txapelketa batean parte hartzea ez da «egunero gertatzen den zerbait», eta Euskal Selekzioagaz lehen aldiz aritzeko aukera izateak are «bereziagoa» egiten du esperientzia.

Kirol-emaitzek, ordea, sentipen desberdinak utzi dituzte. Pilotariak pala motzeko finalera heldu ziren, eta zilarrezko domina lortu zuten. «Momentuan beti geratzen da urrea lortu ez izanaren pena hori, baina hotzean pentsatuta, lehen parte-hartze honetan finalera heltzea oso emaitza ona da. Pozik egoteko modukoa da», azaldu du. Sierraren kasuan, berriz, espero baino laburragoa izan zen txapelketa. Larruzko paletan, bi partida jokatu eta biak galdu zituzten; lehen fasean geratu ziren kanporatuta. «Bi partidu bakarrik jokatzea ez da izan espero nuena», aitortu du. Hala ere, hasieratik bazekiten kanpoan geratzeko aukera zegoela: «Asko entrenatu arren, oraindik askoz gehiago egin behar dugu. Ez da erraza izan lortutako emaitza onartzea, baina pozik egon behar gara sekulako denboraldia egiteagatik».

Mailari dagokionez ere, espero zuten baino maila altuagoa aurkitu zuten. Ziskarrek azaldu duenez, larruzko paletan bazekiten Argentina eta Espainia «hezur gogorrak» izango zirela, eta Frantzia ere aurkari arriskutsua zela. Pala motzean hobeto ibili ziren, baina finala hirugarren setean galtzea kolpe handia izan zen. «Martxotik egon gara astero entrenatzen, oso gogor eta oso fin. Paletaz ez dugu erakutsi daukagun maila; askoz gehiago jokatzen dute gureek», adierazi du.

> «Momentuan beti geratzen da urrea lortu ez izanaren pena hori, baina hotzean pentsatuta, lehen parte-hartze honetan finalera heltzea oso emaitza ona da. Pozik egoteko modukoa da».
> IKER GORDON

> «Ez da erraza izan lortutako emaitza onartzea, baina pozik egon behar gara sekulako denboraldia egiteagatik».
> MARKEL SIERRA

> «Martxotik egon gara astero entrenatzen, oso gogor eta oso fin. Paletaz ez dugu erakutsi daukagun maila; askoz gehiago jokatzen dute gureek».
> PATXI ZISKAR

Emaitzatik haragoko esperientzia.

Euskal Herria bere izenagaz ordezkatzeko aukera izatea lorpen handia izan da.

AMETS BATEN GAUZATZEA. Emaitzetatik harago, Euskal Selekzioagaz Munduko Txapelketa ofizial batean parte hartzeko aukera izateak esanahi berezia izan du hirurentzat. «Urte askoan horrelako aukera baten zain egon gara, eta azkenean Euskal Herria gure izenagaz ordezkatu ahal izatea oso berezia izan da», dio Gordonek. Euskal Herrian pilotan dagoen maila kontuan hartuta, horrelako txapelketa batean parte hartzea merezi zutela uste du; Sierrak ere argi dauka: «Bagenekien Euskal Selekzioak lehen aldiz Munduko Txapelketan parte hartzea gauzarik garrantzitsuena zela».

Ziskarrek beste ikuspuntu batetik bizi du lorpena. Euskal Selekzioa ofiziala izan aurretik, urte askotan hautatzailea izan zen. «Momentu hauetan helburu hau lortzeko urte askotan lan egin duten pilotazale eta euskalzale askotaz gogoratu naz», azaldu du. Bereziki, Kepa Arroitajauregi Euskal Pilota Federazioko zuzendari tekniko izandakoa eta Ander Martin trinketeko hautatzaile eta pilotaria ekarri ditu gogora, besteak beste: «Zoritxarrez ez daude gure artean, baina hor goian oso pozik daudela jakin badakit, beraien helburu nagusia bete delako».

Euskal Selekzioaren kamiseta lehen aldiz Munduko Txapelketa batean janztea, aireportuko agurra, Buenos Aireseko Laurak Bat euskal etxeko harrera, zesta-puntako lehen urrea, himnoa edo ereserkia lehen aldiz bertan entzun zutenean..., une hunkigarriak izan dira. Ziskarrek bereziki gogoratzen du finaletako bat: «Josemari Mitxelenaren ondoan ikusi nuen finala, eta biok negar baten hasi ginen finala irabazi genuenean. Momentu horretan Kepa Arroitajauregiren kamiseta bat neraman jantzita». Sierrarentzat, berriz, taldekideakaz sortutako harremana izan da esperientziaren alderdirik politenetako bat: «Egin ditugun gauza guztiak talde moduan niretzat paregabeak izan dira».



unduko txapelduna»



Uribe Kostako Iñaki Urrutia, Jagoba Madariaga, Esteban Gaubeka, Imanol Ibañez eta Erik Zubiri ere joan ziren txapelketara. EUSKAL PILOTA SELEKZIOA

KURENE ETA ARMINTZA, LANAREN FRUITUAK. Uribe Kostako sei pilotari Munduko Txapelketara heltzea ez da kasualitatea. Gordonek dioenez, Kurene eta Armintza bezalako klubek urte luzez lan handia egin dute kirol hau bizirik mantentzeko. «Askotan ikusten ez den lan handia dago atzean», gogorarazi du berak.

Sierrak, bere aldetik, bi kluben arteko lehiak maila handia mantentzen laguntzen duela nabarmendu du: «Denboraldian zehar bi kluben artean rifi-rafe hori dago, baina egia da hori dela maila altua mantentzen duena».

Ziskarrek ere harrotasun handiz bizi du bi kluben ordezkaritza. Azaldu duenez, bai Sopelak eta bai Armintzak aspaldi dute izen bat erreminta mailan, eta horren atzean lan handia dago, askotan «ikusten ez den lana». Kurenen txikitatik pilotarekiko zaletasuna lantzen saiatzen direla, eta azken urteetan eskuzko modalitatean ere gazteak nabarmentzen hasi direla dio. Armintzaren kasuan, herri txiki batetik hainbeste pilotari on ateratzea nabarmendu du; sekretua, bere ustez, argia da: «Lana, lana eta lana».

Atzetik datozen belaunaldientzako motibazio berria

«Orain badaukate beste helburu bat, Munduko Txapelketa batean Euskal Herria ordezkatzeko aukera. Horrek motibazioa eta ilusioa sortzen ditu, eta gure kirolari ikusgarritasun handiagoa emateko ere balio dezake».

2030ERA BEGIRA. Euskal Selekzioaren lehen Munduko Txapelketa ofiziala mugarri bat izan da, baina protagonistek hasiera besterik ez izatea espero dute. Gordonen ustez, txapelketari esker, aukera berriak zabaldu dira, ez bakarrik gaur egungo pilotarientzat, baita atzetik datozen belaunaldientzat ere: «Orain badaukate beste helburu bat, Munduko Txapelketa batean Euskal Herria ordezkatzeko aukera. Horrek motibazioa eta ilusioa sortzen ditu, eta gure kirolari ikusgarritasun handiagoa emateko ere balio dezake».

Ziskarrek ere etorkizun «itxaropentsua» ikusten dio selekzioari; frontoietan «beste poztasun bat» sumatzen dela dio. 2030eko Munduko Txapelketa Bilbon jokatuko dela azaldu du, eta pilotari askorentzat hara ahalik eta ondoen heltzea izango dela helburu nagusia, Euskal Selekzioaren kamisetagaz jokatzeko.

Lehenengo esperientziak ilusioa piztu du, eta, hemendik aurrera, etor daitezkeen aukerei begira daude. Markel Sierrak, behintzat, argi dauka zer gura duen: «2030ean Euskadi munduko txapelduna». ◂

Gure berbak,

***Asau, paraje, troñu*... Uribe Kostako eguneroko hizkeraren parte diren berbak ezagutarazteko, «Hartu berba!» kanpainari jarraipena emango dio UK-ko Zerbitzu Mankomunitateak. Aurten, gazteen eta ilustratzaile sopeloztar baten laguntzagaz, bertoko berbak tabernetako ezpainzapietara iritsiko dira.**

Baliteke «Eres un saskel», edo «Menudo ganorabako» bezalako esaldiren bat behin baino gehiagotan entzun izana, edo norberak ere erabiltzea. Gaztelaniaz ari garenean ere, Uribe Kostako euskararen arrastoak agertzen dira gure elkarrizketetan, askotan horretaz konturatu gabe. Izan ere, eskualdeko hizkerak baditu berezko berbak, esamoldeak eta esanahiak, belaunaldiz belaunaldi transmititu direnak eta gaur egun ere herritarren egunerokoaren parte direnak.

Ondare hori ezagutaraztea eta balioan jartzea da «Hartu berba!» egitasmoaren helburua. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 2025ean abiatu zuen kanpaina, eta aurten ere jarraipena emango dio Euskararen Nazioarteko Egunaren harira.

GURE BERBAK, GAZTEEN AHOTAN ERE. Tokiko euskara aipatzen denean, sarritan adineko pertsonak edo baserri-inguruneak etortzen zaizkigu burura. Baina hizkera hori ez da iraganeko kontua, eta horixe erakutsi gura izan dute aurtengo kanpainan parte hartu duten gazteek.

Amets Legarra da horietako bat. Beste hainbat lagunakaz batera, eskualdeko euskararen inguruko ikastaroetan parte hartu du, Iñaki Gilisastiren eskutik. Hasieran, eguaztenero elkartzen ziren, eta maiatzean lau zapatuko ikastaroa ere egin zuten. Topaketa horietatik sortutako taldeari iritsi zitzaion «Hartu berba!» egitasmoan parte hartzeko proposamena.

«Azkenen, beti pentsaten dogu euskera hau baserritan eta holau lekutan entzuten dala bakarrik. Eta guk, gaztek, bardin itxen du berba. Ez gare asko, baia erabilten du», azaldu du. Horregatik, berbak aukeratzeko ardura hartu zutenean, eguneroko hizkeratik abiatu ziren. Hainbat proposamen egin ondoren, animalien izenakaz osatutako bilduma prestatzea erabaki zuten, aurtengo kanpainari hari komun bat emateko.

Legarrarentzat, ordea, parte hartzea ez da berba batzuk aukeratzea soilik izan. Eskualdeko euskararen berezitasunak ezagutarazteko aukera ere bada, askotan oharkabean geratzen direla uste baitu. «Gutzako oso garrantzitsue da jentek jakite gure euskera ez dela euskera batu. Euskera batu existiduten da eta beharrezkoa da, alkartasun bat egon behar dalako eta danok alkar ulertu behar dugulako», dio.

Haren iritziz, egun jende askok ez ditu bereizten eskualdeko euskara eta euskara batua, eta horrek tokiko hitzak gero eta gutxiago entzutea dakar. Horregatik, kanpainaren bidez ez du herritarrak berehala hizkera hori erabiltzea espero. Lehen urratsa askoz xumeagoa da: «Jentek, igual ikesi ez, baia jakin deila, gitxienez, existiduten dala, gu existiduten garela».

Hizkuntzaren transmisioak ere badu garrantzia Amets Legarraren bizitzan. Bere familia Sopelakoa da, eta etxean zein inguruko harremanetan jasotako hizkerari esker ikasi du bertako euskara. Hala ere, belaunaldien arteko transmisioa ahultzen ari dela sumatzen du, eta kezka horrek halako egitasmoetan parte hartzera bultzatu du. Berbak ezagutaraztea, azken batean, horiek erabiltzen dituzten pertsonen eta herrien historia ere ikusgarri egitea delako.

BERBEI IRUDIA JARTZEN. Baina nola irudikatu inoiz entzun ez duzun berba bat? Horixe izan da, neurri batean, Oscar Torrebiarte ilustratzaile sopeloztarraren erronka. Aurten, berak eman die forma eta kolorea «Hartu berba!» kanpainako hitzei, eta esperientzia berezia izan dela aitortu du.

«Oso esperientzia polita izan da, asko gozatu dut. Nire ekarpen txikia egin ahal izatea gustatu zait», azaldu du. Proiektuan parte hartzeko proposamena ezustekoa izan zen harentzat, eta ilusio handiz hartu zuen. Izan ere, euskaraz bizi ez den arren, tokiko hizkera ezagutarazteko ekimenak interesgarriak iruditzen zaizkio, berbak galtzea saihesteko modu dibertigarriak direlako.

Aurtengo hitzek ere ezustekoa eman diote. «Guztiak izan dira sorpresa niretzat! Ezagutzen nuen bakarra 'txindorra' zen», aitortu du. Ilustrazioetan erantzun zuzenak eta okerrak nahastu ditu, herritarrak pentsatzera bultzatzeko.

Txikitatik gustatu izan zaio marraztea, eta gaur egun ere paisaiak eta aurpegiak irudikatzen gozatzen du. Oraingoan, gainera, ilusio berezia egiten dio bere lanak eskualdeko taberna eta saltokietan ikusgai egongo direla jakiteak.

Hartu Berba!

Zer da?

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak 2025ean abiatutako egitasmoa da, eskualdeko berbak ezagutarazteko eta horien erabilera sustatzeko.

Noiz?

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Uribe Kostako taberna, jatetxe eta bestelako ostalaritza-establezimenduetan jarriko dituzte aurtengo ezpainzapiak eskuragarri.

Zelan parte hartu?

Zortzi ezpainzapi-eredu egongo dira, bakoitza bertoko berba eta ilustrazio bategaz. Hiru aukeren artean berbaren esanahia asmatu beharko da, eta erantzun zuzena ezpainzapiaren atzealdean egongo da.

«Gure inguruko berbak jendearengana hurbiltzeko eta gal ez daitezen laguntzeko modu dibertigarri eta sortzailea da»

OSCAR TORREBIARTE
KANPAINAKO ILUSTRATZAILEA

gure ahotan



«Azkenen, beti pentsaten dogu euskera hau baserritan eta holau lekutan bakarrik erabilten dala, baia guk, gaztek, bardin itxen du berba. Ez gare asko, baia erabilten du»

AMETS LEGARRA
HITZEN AUKERATZAILEETAKO BAT

Euskaraz jolasteko ezpainzapiak

Zortzi eredu izango dira guztira, bakoitza eskualdeko berba eta Torrebiarteren ilustrazio batekaz. Baina ez dira ezpainzapi apaingarriak izango; aurten ere, jolas txiki bat proposatuko diete herritarrei. Berba bakoitzaren esanahia asmatu beharko dute, hiru erantzunen artean zuzena aukeratuta. Ondoren, ezpainzapiaren atzealdean edo tolesduraren barruan begiratuta, asmatu duten egiaztatu ahal izango dute.

Horrela, eguneroko keinu arrunt bat, ezpainzapi bat hartzea, bertoko euskaragaz topo egiteko aukera bihurtuko da. Lagunarteko elkarrizketa batean, bazkalostean edo kafe baten bueltan, berba batek galdera bat sortu dezake: «Eta honek zer esan gura du?».

Horixe da, hain zuzen ere, Legarraren itxaropena. Ez du jende guztiak hitzak berehala ikastea eskatzen, baina bai ezpainzapiari begiratu, irakurri eta jakin-min apur bat erakustea. «Gustako lekiat itzelezko inderra hartute, jentek serbilletak hartzen dauzenen, gitxienez, irakurri eta esan deiela “zer da hau?”», azaldu du. Ilustrazioek ere horretan lagunduko dutela uste du: «Marrazkik ikusi dodaz eta oso erakargarrik dire; oso politxek. Horreaitxik espero dot, gitxienez, serbilletak hartu deiezela, zer dan ondo aditxu eta gero berba horrek entzuten badaudez, jakin deiela zer diren».

Horrez gainera, kanpainak euskaragaz harreman desberdinak dituzten herritarrak elkartu gura ditu. Bertako hizkera erabiltzen dutenak, euskara batua dakitenak, ikasten ari direnak eta euskaraz bizi ez direnak. Izan ere, tokiko berbak ezagutzea ez dago hizkuntza maila jakin baten menpe, eta jolasaren bidez edonork egin dezake lehen hurbilketa.

«Hartu berba!» egitasmoak datozen urteetan ere jarraipena izatea aurreikusten du Mankomunitateak, urtero eskualdeko ilustratzaile baten parte-hartzeagaz eta herritarrak berben aukeraketan inplikatuta. Helburua ez da berbak bilduma batean gordetzea, eguneroko bizitzan lekua egitea baizik.

Azken batean, hizkera bat bizirik mantentzeko, norbaitek erabili behar du, beste norbaitek entzun eta hurrengo batek ikasi. Horrela, belaunaldiz belaunaldi transmititutako berbek gure artean lekua izaten jarraituko dute. Batzuetan, horretarako lehen urratsa ez da handia izaten: tabernako mahai gainean dagoen ezpainzapi bat hartu, marrazkiari begiratu eta esanahia asmatzen saiatzea.

Ezetz asmatu!

Asau, troñu, saskel, kirikolatza... Ezagunak egiten zaizkizu? Uribe Kostan baditugu geure-geureak diren berbak, baina denok ez dakigu zer esan gura duten. Batzuk etxean entzun ditugu txikitatik; beste batzuk, beharbada, lehenengoz irakurriko ditugu hemen. Bada, orain zure txanda da! «Hartu berba!» kanpainako ezpainzapietan bezala, hiru aukeren artean erantzun zuzena asmatu beharko duzu. Begiratu marrazkiari, pentsatu apur batean eta aukeratu erantzuna. Ea zenbat asmatzen dituzun!



Zer esan gura dau *SALTAMATXINO* berbak?

1- ☐ **TRANPOLINA**

2- ☐ **OSABA JATORRA / TIOVIVO**

3- ☐ **MATXINSALTOA / SALTAMONTES**

+ 16 urte

GUROT

EUSKAL TRIBIALA

Zeure inguruko eta mundu zabaleko galderak



SARI EDERRAK!

Jokatu eta irabazi sariak: *asteburu-pasa bi EAEko nekazal-turismo batean

* bakoitza lagun birentzat (gau bi + gosaria)

16 urte edo gehiago dituzu? Amorebieta-Etxanon, Durangaldean, Getxon, Gernika-Lumon, Enkarterrin, Mungian edo Txorierrin bizi edo ikasten duzu?
Lehiaketa: azaroak 9 - abenduak 13.

Ordura arte praktikatu nahi beste!

Gura izanez gero, **deskargatu app-a**

GET IT ON Google Play

Download on the App Store

Eman izena!
gurot.eus

KALTEA LEPOAN BIZARRA DAGIANAK

Getxo
bizi ezazu

Gogoa, pentsamenduen sorleku

Gure gogoak informazioa erabiltzen eta antolatzen duenean sortzen dira pentsamenduak. Psikologo kognitiboek gogoa software batekin alderatzen dute: haren funtzionamendua elkarrekin modu koordinatuan lan egiten duten prozesuetan oinarritzen da.

EGILEA: **MARIA DEL CARMEN SANJUAN ARTEGAIN** ▶

Gogoak ez du forma fisikorik, baina egiten dugunaren atzean dago: hautematea, sentitzea, gogoratzea, arreta jartzea, pozik egotea, erabakiak hartzea edo pentsatzea. Ezin da zuzenean behatu, baina esperimentuen bidez ikertzen dugu, esperientziek prozesu mentalak eta, ondorioz, jokabidea nola aldatzen dituzten aztertuz.

Garuna organo fisikoa da. Zientzialari gehienek gogoa garunaren jarduerarekin lotzen dute. Mugikor batean bezala, garuna hardwarea litzateke, eta gogoa softwarea. «Softwareak» elkarlanean diharduten prozesuen bidez funtzionatzen du: pertzepzioa, arreta, memoria, motibazioa, ikaskuntza, emozioak eta hizkuntza, besteak beste. Prozesu horien elkarreraginetik sortzen da geure buruaz eta munduaz dugun esperientzia subjektiboa; prozesu horiek jokabidea ere gidatzen dute.

Ikusten, entzuten, ukitzen, usaintzen, dastatzen edo sentitzen duguna prozesatu egiten da, eta oroimenean gorde daiteke irudikapen mental gisa. Gure esperientzien barne-aztarnak dira: irudiak, oroitzapenak, emozioak, kontzeptuak, gauzen arteko loturen ezagutzak —hodeiek euria iragar dezaketela, adibidez— edo zerbait egiteko moduak, bizikletan ibiltzea kasu.

Pentsatzean, irudikapen horiek aktibatu, konbinatu, konparatu, aztertu edo ebaluatzen ditugu, baita egoera berriak irudikatzeko erabili ere. Ezagun bat ikustean, harekin bizitako une atsegin bat gogora etor dakiguke. Horrek poza eta hurbiltzeko gogoa piztu ditzake, eta «agurtu nahi dut» ideia sortu. Baina arretari eta memoriari esker presaka gabiltzala gogoratzen badugu, agurtzera ez hurbiltzea erabaki dezakegu. Horrela, pertzepzioa, memoria, emozioak eta motibazioa uztartzen dira erabakian.

Pentsamenduek planifikatzen, aukerak baloratzen, ondorioak aurreikusten eta erabakiak hartzen laguntzen digute, baita besteen lekuan jartzeko, etorkizuna irudikatzeko eta gauza berriak sortzeko ere. Baliteke ingurunera egokitzeko eta gizartean bizitzeko abantaila horiek eboluzioan zehar pentsatzeko gaitasunaren garapena bultzatu izana. ◀



Gogoak ez du forma fisikorik, baina egiten dugunaren atzean dago.
ARGAZKIA: TUMISU. ITURRIA: PIXABAY.COM

Gure esperientziak oroimenean gorde daitezke irudikapen mental gisa; pentsatzean, irudikapen horiek aktibatu, konbinatu, konparatu, aztertu edo ebaluatzen ditugu.

Zientzia Kaiera blogean jatorriz argitaratutako *Nola sortzen dira pentsamenduak?* artikuluaren egokitzapena. Eskaneatu QR kodea bertsio osoa irakurtzeko.

KIMU KUKUKA







Mila esker



JOSU ESNAOLA Helduen euskara-irakaslea

Azkeneko hamahiru urteak Leioako Berbaldun egitasmoa dinamizatzen eman ostean urtarrilean erretiroa hartzekoa naiz. Eginkizun horrek jende asko ezagutzeko aukera eman dit, eta horietako asko laguntzat dauzkat gaur egun. Ezin denon izenak aipatu hain tarte laburrean, baina lerro hauen bitartez astero-astero eman didazuen maitasun eta bizipoz guztia eskertu nahi dizuet; baita euskaldunon mundura hurreratzeko nahiz euskaraz bizitzeko, astean ordu batzuetan bada ere, egiten duzuen ahalegina ere. Zuek eman didazuen hori guztia gabe ez nintzateke gaur egun naizena izango. Akaso horregatik igartzen dut barru-barruan sentimendu gazi-gozo hau. Gozoa, gogoko ditudan bestelako gauzetan denbora luzeago eman ahal izango dudalako; gazia, gure astez asteko harremana erabat etengo ez bada ere, maiztasuna gutxitu eta lausotu daitekeelako. Hala bada, adiorik ez. Berriro elkartuko gara kale, plaza nahiz mendietan. Eta jarraituko dugu elkarrekin berba egiten, kantatzen, dantzatzen; elkarrekin amets egiten azken batean. Mila-mila esker urte hauetan berbalagun izan zaituztedan guztioi, beti egongo naiz zuekin zorretan.

Gurasokeria



AMAIA ARRIAGA Euskaltzalea

Udal bulegoetan, txandari itxaroten nagoen bitartean, horma alderik alde hartzen duen iragarki-taulari erreparatu diot eta oso deigarri egin zait bertan jarritako ohar eta kartel ia denetan «zaintza» edo laguntza eskaintzen dutela administrazioaren iragarkiek: zeure burua zaintzea denok zaintzea da, erretzeari uzten lagunduko dizugu, aholkularitza zerbitzua atzerritartasunaren arloan laguntza eskaintzeko, jokabide suizidak prebenitzeko laguntza-baliabideak, umeen zaintzarako eta eskola lanekin laguntzeko lan-poltsa, Kontsumobidek laguntzen dizu erosterakoan zure burua saldu ez dezazun, indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko zerbitzu psikologikoa... Eta, horrela, beste hamaikatxo, zure etxearen osasuna zaintzeko eta lehergailuen zaintzarako espezializazio berezia lortzeko Foru Aldundiak %100ean diruz lagundutako ikastaroaren iragarkia barne. Eta neure artean pentsatu dut noraino iritsi den zaintza erdigunera ekartzeko aldarriaren oihartzuna! Baina txantxarako aukeraren atzean, hormari darion gurasokeria nabarmendu zait, herritar eskatzailea versus boteredun emailea irudikatu baititut. Eskerrak gero kalera urten eta grebarako eta borrokarako afixak nagusi diren herriko hormetan.



* Promozioak 2026ko abenduaren 31ra arte balio du, gaur egun LABORAL Kutxa STa ez duten saltoki berrientzat. Android STrako eta ST birtualerako eskuragai eta Payclick zerbitzuarekin.

** Hileko fakturazioa 20.000 €-tik gorakoa bada, % 0,40ko deskontua aplikatuko da zenbateko horretatik gorako tartearen gainean. Enpresa-txartelaren bidez egindako hileko fakturazioa eta nazioarteko txartelaren bidez eragiketa ez-presentzialetan egindakoa hileko fakturazio osoaren % 10etik gorakoa bada, % 1,5eko tasa aplikatuko zaie eragiketa horiei guztiei. Kuotak saltokiko terminal (ST) baten mantentze-kostua hartzen du barne, eta terminal gehigarri bakoitzeko 5 €-ko komisioa kobratuko da.

LABORAL kutxa

Lehen/Orain **Neguriko eliza, 1915. urtean**



ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN

Uribitakora



TESTUA
Galder Bilbao Martinez, *Txapi*

DOINUA
Meñakozetik Atxularrera

ARGAZKIA
Hodei Torres

Sasiek jandako alorra

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Itsasoko mastodonte honek
bizi ditu istorioak,
hainbeste pisu eta bolumen
fisikaren laudorioak.
Iceberg edo arroken kontra
emanda talka serioak,
agian ur-gaziko piratak
izan dira arerioak.
Zer gertatu den jakin behar da
ateratzeko ondorioak.

Itsasoan lurrean edo airean
baditugu tragediak,
gero kalte danak konpontzeko
ai zelako komeriak.
Zuria urdiña eta gorria
gaizkileen legediak,
aurretik eta baita atzetik
tira ta bultza sendiak;
txikiek bere gain hartuz beti
handien hondamendiak.


Infinitoa urrun egonda
hurbiltasunean gera,
kosta berdea itsaso urdiña
kontrastea utziz aldera.
Korbataz edo bainujantzian
gerta daiteke berbera,
jausi laban edo irrist egitean
badago beste aukera;
bizitzan ez alboz ez atzera
joan behar da zuzen ta aurrera.

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

Zeeeerrr?!


Zure ustez, zer esan dio zonbi batek besteari gurutzatu direnean? Idatzi bunbuiloan. Bide batez, margotu irudi osoa.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu zazpi kuia hauek handienetik (1) txikienera (7).





Ezagutzen al duzu Lucky Luke, bere ifzaldia daino azkarragoa den cowboy bakarrifia? Hemen behean dago, iasol-iasol, doiua bat ohoton hartutu. Baina zer ori ote da kontatzen?

Jarri marrazkiko dagokion hizkia eta osmatuko duzu. Horretarako, erabili beheko hizki-marrazki alfabetoa.





Mezu gorde

SOLUZIOAK: AURREKO SOLUZIOAK

Labirintoa

Lagundu mamu honi bere etxe sorginduraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu, eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tarteak dira.





Idatzi hemen esaldia: _____



Euskal kultura kontsumitzen al duzu?



AMAIA LANUZA
GASTEIZ

Gaur egun ez dut euskarazko ikus-entzunezko askorik ikusten, baina txikitan bai, telesailak bereziki, eta euskarazko liburuak ere irakurtzen nituen maiz. Orain, musika asko entzuten dut euskaraz, oso gustuko dut.



OIHAN OLASOLO
GERNIKA

Bai, orokorrean, adi egoten naiz Primeran bezalako plataformei, ea nobedaderik dagoen; adibidez, ikusi dudan azken telesaila *Argi gorriak* da, eta gustatu zait. Eduki laburragoak ere gustuko ditut, *Superra* kasu.



BERTHA GAZTELUMENDI
HONDARRIBIA

Euskal kultur produktuak maitasunez kontsumitzen ditut. Literatura kontsumitzen dut gehienbat. Zineman, azken finean, ez dago gauza handirik, baina saiatzen naiz euskarazko filmak daudenean horiek ikustera joaten. Musika ere bai entzuten dut euskaraz, baita beste hizkuntza batzuetan ere.



IRATXE PEREZ URDIAIN
GETXO

Liburuak, bai, oraintxe irakurtzen ari naiz *Maitasun kapitala*, Karmele Jaiorena. Musika ere entzuten dut euskaraz, plataformetan eta horrelakoetan. Bestetik, noizean behin, euskarazko pelikula edo antzerkiren bat ere ikusten dut.



ASIER POU
PLENTZIA

Musika bai, oso gustuko ditut J Martina, Mirua... eta horrelako gauza berriak. Euskara entzuteko eta C1 titulua lortzeko marrazki bizidunak ikusten ditut euskaraz *Shin-chan*, *Doraemon*, edo telebistan jartzen ari direna.



MONICA LANCHAS
BILBO

Bai, saiatzen naiz euskarazko liburuak erosten, diskoak ere bai... Zea Mays eta horrelakoak asko gustatzen zaizkit. Batzuetan euskarazko pelikulak ere ikusten ditut.



IKER GOÑI
IRUÑA

Bai, batez ere musika. Lehen etxetik jaso ditugun taldeak entzuten genituen kotxean, etxean... Orain, talde berriak entzuten ditut, nik ere badaukat talde bat, eta euskaraz egiten dugu musika. Pelikulen kasuan, euskarazko proiektuak ateratzen direnean saiatzen gara ikustera joaten.



GAROA HERNANDEZ
ULTZAMA

Musika entzuten dut euskaraz, ez da gehien entzuten dudan hizkuntza, baina entzuten dut. Filmak eta horrelakoak ere bai, adibidez, asko gustatzen zaidan pelikula bat *Bizkarsoro* da, euskarazkoa, oso polita iruditzen zait.

HIRUKAlagunen txokoa
Sari ederrak eskura!

Zozketa
La Fiambrerako menuak

Bertako produktuakaz maitasunez prestatutako bazkariaz gozatu gura duzu? Lau pertsonentzako eguneko menua dastatzeko aukera dugu zozkagai. Probatzeko gogoz geratuko zara?

Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroaren 29a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa
Arene 6 ikusteko aukera

Abenduaren 4an, Muxikebarrik Arene 6 taldearen kontzertua hartuko du. Taldeak bere disko berria, *Sutan*, aurkeztuko du zuzenean. Dantzatzeko eta abesteko prest?

Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroaren 29a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa
Bertsolari Txapelketa 2026

Abenduaren 5ean, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoen bigarren itzuliko azken saioa ospatuko dute. Saioa 17:00etan hasiko da, eta sarrera bikoitzak ditugu zure zain!

Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroaren 29a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Hasi ospatzen

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

gurekin!

ARGIA EREITEN

Getxoko Euskara Saria

XVII. edizioa - 2026

Aurten **ARANTZA MARTINEZ EROSTARBEk** jasoko du Argia Ereiten Saria, euskara irakatsi ez ezik, bizi eta biziarazi ere egin duelako.

UGAITZ ALEGRIA eta **AINHOA ETXEBARRIA** izango dira aurtengo aurkezleak.



ABENDUAK 2 | 19.00 | Muxikebarri (Arrigunaga Aretoa)

Etortzeko asmoa baduzu, deitu **944 660 010** telefonora edo idatzi hona: **euskara@getxo.eus**

Getxo bizi ezazu